



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 6a

133. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (28. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa noizko aurreikusten den 19/2018 Foru Legean toki administrazioaren atalean sartutako obrak baimentzea. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (29. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasunak egun emanik dauzkan banku-kredituen parte bat abalatzeko egin duen proposamenari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro egin du (30. or.).
- Galdera, Skolae programa Nafarroako ikastetxeetan derrigorrez ezartzeari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (30. or.).
- Galdera, Skolae deitutako hezkidetza-programan Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako erabilitako fitxetako bati buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Trafiko eta Bide Segurtasunaren eskumena transferitzearen inguruan Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu zentralaren artean izandako akordioari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, ludopatiaren sintomekin joaten direnei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkeztu zaien jarduketa protokoloari eta ibilbideari eta osasun publikoaren arloan dauden baliabideei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (32. or.).
- Galdera, jakiteko ea Espainiako Gobernuak errespetatuko ote duen inbertsio finantzarioki jasangarriei buruz Parlamentu honek onetsitako 19/2018 Foru Legearen eduki osoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak lehendakariarekin izandako bilerari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (34. or.).

- Galdera, Nafarroako familiek PFEZaren dirua atzeraeraginez berreskura dezaten babesteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko aurki egitekoa den oposizio-lehiaketari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (35. or.).
- Galdera, turismo-gidarien sektorea arautzeari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (35. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea (36. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzekoa (37. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hurrengo testu honekin ordeztuko da:

“a) Nafarroako Poliziak: Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako toki entitateetako poliziak.

b) Polizia: segurtasun publikoa zaintzeko ardua duen funtzionario publikoa, Nafarroako Polizietako bateko kide dena eta legeek horretarako ematen dioten agintea duena.

c) Nafarroako Foruzaingoa: Nafarroako Foru Komunitateko polizia berekia.

d) Nafarroako toki entitateetako poliziak: Nafarroako toki entitate baten menpekoak diren poliziak, tokiko poliziek eta udal agenteek osatuak.

e) Tokiko Polizia: izaera zibileko segurtasun zerbitzua, egitura eta antolamendu hierarkizatua duena, Nafarroako toki entitate bakar baten menpekoa.

f) Udal agenteak: Toki entitateetako langile funtzionarioak, egun daukaten deitura gorabehera, polizia-zerbitzua modu ez eksklusiboan ematen dutenak.

g) Tokiko Poliziaren laguntzailea: Tokiko Polizia duten Nafarroako toki entitateek administrazio araubidean aldi baterako kontratatzen dituzten

langileak, polizia horretako langileei laguntzeko, absentismo arrazoiak tarteko, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzeko, edo segurtasun publikoaren arloan gertatzen diren beharrei kasu egiteko, langile finkoekin aski ez denean.

h) Tokiko Poliziako Zerbitzua: tokiko poliziarik ez duten Nafarroako toki entitateek emandako polizia-zerbitzua, udal agenteek osatua”.

Zioak: Nafarroako polizien definizioan jasota uzten dira polizia-langileak dituzten bi administrazioak: Nafarroako Gobernua, eta toki entitateen udal maila.

Udal agenteak agintaritzaren agente funtzionarioak dira, beren eginkizunetan dihardutenak. Tokiko Poliziaren baldintza berak bete behar dituzte sartzeko hautaprobetan onartuak izateko, eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako berariazko prestakuntzako ikastaro bera gainditu behar dute; hau da, Nafarroako poliziak dira.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1.2.a) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Nafarroako poliziak: Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako tokiko poliziak eta tokiko polizia zerbitzuak”.

Zioak: Udal agenteek ez dute Nafarroako polizien izaeratik kanpo gelditu behar.

3. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Xedea eta definizioak

2. artikulua f) letra aldatzen da:

“f) Tokiko Poliziako Zerbitzua: tokiko polizia ez duten Nafarroako toki entitateek emandako polizia-zerbitzua, “udal agenteak” deitura hartuko duten langileek osatua”.

Zioak: 1. artikulua jada ezartzen zuen udal agenteak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren menpeko langileak direla. Bistan da ezen Nafarroako Poliziari buruzko Foru Lege proposamen honek Nafarroako Poliziaren Estatutuaren ezartzen badu, estatutu horren aplikazioan udal agenteak ere sartu behar direla, agintaritzaren agente gisa jarduten baitute.

4. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

3.b) artikulua gehiketa egiteko zuzenketa:

Hona gehitzen den testua: “Sexu-orientazioa”.

Zioak: Diskriminazio-arrazoi gisa sexu-orientazioari dagokiona jaso beharra dago.

5. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6.2. artikulua 2. paragrafoa kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados Nafarroako polizientzat jardunbide onen eta gardentasunaren batzorde bat sortzeko beharrarekin, zeren eta Nafarroako Administrazio Publikoan jada jardunbide onen batzorde bat eta gardentasunaren kontseilu bat bai baitaude.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados Nafarroako polizientzat jardunbide onen eta gardentasunaren batzorde

bat sortzeko beharrarekin, zeren eta Nafarroako Administrazio Publikoan jada jardunbide onen batzorde bat eta gardentasunaren kontseilu bat bai baitaude.

7. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7.5 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“5. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea bost pertsonen osatuko dute; hiru urteko aldi baterako izendatuko dira Nafarroako Lehendakariaren foru dekretu baten bidez, Nafarroako Administrazio Publikoaren edo haien menpeko erakunde publikoaren zerbitzuko langileen –jardunbide onen eta gardentasunaren– artetik. Izendatutako pertsonen eginkizunak zabalak edukiko dituzte segurtasun publikoaren, zuzenbidearen, soziologiaren, psikologiaren edo etikaren arloetan. Pertsona horietako batek Nafarroako polizia izan beharko du”.

Zioak: Egokiagotzat jotzen da batzorde hori osatzen duten pertsonen langile publikoaren izaera edukitzea edo eduki izatea, zeren eta Administrazioaren barruan eginkizun hori betetzeko nahikoa prestakuntza baduten langileak baitaizkagu, kanpoan bila ibili behar izan gabe.

8. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7.7 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea osatzeko izendatutako pertsonen eginkizunak ez dira ordainpekoak izanen”.

Zioak: Egokiagoa da, batzordekideak langile publikoak baitira.

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Nafarroako Poliziaren Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea.

7. artikulua bosgarren eta zazpigarren apartatuak aldatzen dira.

“5. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bost kide izanen ditu, hiru urterako izendatuak Nafarroako Gobernuako lehendakariaren foru dekretuaren bidez, segurtasun publikoaren, zuzenbidearen, soziologiaren, psikologiaren edo etikaren gaitan ezagutza zabalak dauzkaten funtzionarioen artean; kide horietako batek Nafarroako polizia izan beharko du”.

“7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeko kideek ez dute kontzeptu horrengatik kalte-ordainik jasoko”.

Zioak: Funtzionarioak izateak bermatzen du edozein agindu politikotatik independenteak izanen direla, zeren eta honako printzipio hauek guztiz betez jardunen baitute: objektibotasuna, inpartzialtasuna, sekretu profesionala eta ordenamendu juridikoarekiko errespetua.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10.3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foruzaingoan sartzeak ondore guztiak eduki beharko ditu.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria

“1. Tokiko polizia edo tokiko poliziako zerbitzuak dauzkaten toki entitateek beren tokiko poliziako edo tokiko poliziako zerbitzuetako langileak Foruzaingoan sartzeari adostu ahalko dute, eta horrela tokiko poliziak edo agenteak foruzain bihurtuko dira ondore guztietarako, foru lege honetan jasotako baldintzetan, eta zerbitzua ematen dute beren jatorriko toki entitatetik hurbilen dagoen Foruzaingoaren polizia-etxean”.

Zioak: Kontua da aukera ematea tokiko poliziako zerbitzuak eta tokiko poliziak Foruzaingoan sartzeko, toki entitate desberdinek egokitzen dutenean.

Lehen idatzita zegoen bezala artikulua lortzen duen bakarra da gorriz jantzitako udal poliziak sartzeari.

12. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordean ondoko testua proposatzen da:

“1. Tokiko polizia edo tokiko poliziako zerbitzua duten toki entitateek adostu ahalko dute beren langileak Nafarroako Foruzaingoan integratzea eta Foruzaingoak bere gain hartzea kasuko toki entitatearen udal mugapeko eskumenak.

Horretarako, tokiko poliziatik edo tokiko polizia zerbitzutik heldu diren langileak toki entitateari atxikiko zaizkio, zerbitzua bertan emateko; hori, halere, ez da eragozpena izanen gero, bide arruntetatik, beste destino batzuetara sartzeko daukaten eskubiderako”.

Zioak: Hartara, zabaldu egiten da udal agenteen kolektiboa Foruzaingoan sartzeko aukera, tokiko polizien baldintza berdinetan.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1

“11. Toki entitateak elkartzea tokiko poliziaren edo tokiko poliziako zerbitzuen eskumenak batera betetzeko

1. Tokiko Polizia duten edo Tokiko Poliziako zerbitzuak dituzten Nafarroako toki entitateek elkartzeko akordioak izenpetzen ahalko dituzte Tokiko Poliziaren eskumenak batera betetzeko, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Toki entitate mugakideak izatea.

b) Tokiko Poliziaren eskumenak betetzeko bakoitzak bere aldetik behar adina baliabiderik ez izatea.

c) Elkartutako toki entitateetako biztanle kopurua guztira ez izatea 40.000 biztanletik gorakoa”.

Zioak: Udal agenteak ez uztea balizko elkar-tze-akordioetatik kanpo.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“12. artikulua. Zerbitzuak emateko hitzarmenak

1. Inguruabar bereziengatik, urteko garai batzuetan polizia zerbitzuen karga handiagoa duten toki entitateek, baina urte osorako langile gehiagoren beharrik izan gabe, beren plantillak indartzen ahalko dituzte beste toki entitate batzuekin izenpetutako akordioen bidez, entitate horietako Tokiko Poliziako edo Tokiko Poliziako Zerbitzuetako langileek zerbitzuak eman ditzaten toki entitate eskatzailean denbora epe batez, zerbitzu eginkizunen figura erabiliz”.

Zioak: Udal agenteak ez uztea balizko elkar-tze-akordioetatik kanpo.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“r) Tokiko polizia laguntza ematea beren herrian garrantzia duen informazioa ematerakoan”.

Zioak: Nafarroako polizien arteko lankidetzaren bata bestearekikoa izatea.

16. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Eginkizunak.

l) letrari honako hau dioen esaldi bat gehitzen zaio:

“l) Polizia judiziala. Delituak ikertu eta jazar-tzea, ustezko errudunak aurkitu eta atxilotzeko, delituko tresna, efektu eta probak segurtatzeko, haiek epaile edo auzitegi eskudunaren esku utziz, eta bidezko diren txosten teknikoak eta perituxostenak egiteko”.

Zioak: Polizia judizialaren eginkizuna zehaztea. Argi utzi behar da nor den eskuduna berariazko polizia judizialaren eginkizun hori betetzeko; eginkizun hori polizia guztiek duten polizia judizial orokorrarenaz beste bat izan da.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Polizia judiziala.

1. puntuan honako hau dioen testua gehitzen da:

“Nafarroako Foruzaingoak ordenamendu juridikoak Polizia Judizialaren arloan, zehazki nahiz orokorrean, esleitzen dizkion eginkizun orokorrak beteko ditu. Delituak ikertu eta jazarriko ditu, ustezko errudunak aurkitu eta atxilotzeko, delituko tresna, efektu eta probak segurtatzeko, haiek epaile edo auzitegi eskudunaren esku utziz, eta bidezko diren txosten teknikoak eta perituxostenak eginen ditu. Bide egokien bitartez, eginkizun horietan laguntza emanen die agintaritzak judizialari, ministerio fiskalari edo auzitegiei”.

Zioak: Lege proposamenaren artikulua idatzita dagoen bezala, uler daiteke polizia judizialaren berariazko eginkizunak beteko dituztela soilik epaileek eta fiskalek hori eskatzen badiete. Hau da, Iruñeko tokiko polizian egiten den modu berean. Zuzenketak ahalmena eman nahi dio polizia judizialari hori ofizioz egin dezan.

18. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikuluari 5. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. Tokiko poliziako langileei Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoa aplikatuko zaie, foru lege honetan ezarritako salbuespenekin, bai eta aplikatzekoa zaien Estatuko zein foru erkidegoko gainerako ordenamendu juridikoa ere”.

Zioak: Udal agenteak, udal langile funtzionarioak baitira, sarturik daude Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan. Ez da hori, ordea, Foruzaingoaren kasua.

Horrenbestez, langileen estatutuari gehigarria izatera ematea, foru lege proposamen honek egiten duen bezala, erreferentzia nagusiko esparrua izanzen litzatekeen Nafarroako polizien estatutu berri baten kaltetan, esan nahi du udal langileen kolektibo bat modu onartezinean kanpoan uzten direla, beren polizia-eginkizunak ustez salbuespen

bat direlakoan. Horrek langile guztientzako eskubide eta betebeharren beharrezkoa den parekatzea desorekatzen laguntzen du.

Ordenamendu juridikoaren gainerakoak aipamena egiten die Segurtasun Indar eta Kidegoen 2/1986 Lege Organikoaren 51. artikuluari eta toki araubidearen araudiari.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

21.d) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“d) 40.000 biztanle arteko Tokiko Polizien edo Tokiko Polizietako Zerbitzuen elkarteetan, foru lege honen 11. artikuluan aipatzen diren horietan: gutxienez 1,3tik 1,8 polizia arte 1.000 biztanleko”.

Zioak: Udal agenteak ez uztea balizko elkar-tze-akordioetatik kanpo.

20. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Biztanle bakoitzeko ratioak.

Aldatu egiten dira 21. artikuluko ratioak; hona hemen edukia:

b) apartatuan 1,3 eta 1,5 bitarte.

c) apartatuan 1,5 eta 1,8 bitarte.

Zioak: Udal polizien plantillak gutxitzea, objektiboki gehiegizko dimentsioa baitute.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Biztanle bakoitzeko ratioak.

Azken paragrafo bat gehitzen da; honela dio hitzez hitz:

“Artikulu honetan aipatutako ratioak kuantifikatzeko, kontuan hartuko dira, ondore guztietarako, zerbitzua eman dutela erakusten duten tokiko polizien laguntzaileak”.

Zioak: Udal polizien plantillak gutxitzea, objektiboki gehiegizko dimentsioa baitute.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa. Eginkizunak.

1. puntuan e) letra gehitzea; honako hau dio:

“Polizia Judizialaren eginkizunetan parte hartzea, Estatuko segurtasun indar eta kidegoen eta Nafarroako Foruzaingoaren laguntzaile gisa”.

Zioak: Gure proposamena da berariaz erredaktatu dadila aipatzen duten legeria indardunak ematen dien laguntzaile-eginkizuna, eta, gainera, artikulua berariaz Foruzaingoa aipa dezala.

23. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

25. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordezkari ondoko testua proposatzen da:

“2. Tokiko poliziako zerbitzuetako langileei Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoa aplikatuko zaie, foru lege honetan ezarritako salbuespenekin, bai eta aplikatzeko zaien Estatuko zein foru erkidegoko gainerako ordenamendu juridikoa ere. Ondore guztietarako, estatutu horren C mailan sartuko dira”.

Zioak: Udal agenteak, udal langile funtzionarioak baitira, sarturik daude Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan. Ez da hori, ordea, Foruzaingoaren kasua.

Horrenbestez, langileen estatutuari gehigarriaren izaera ematea, foru lege proposamen honek egiten duen bezala, erreferentzia nagusiko esparrua izanen litzatekeen Nafarroako polizien estatutu berri baten kaltetan, esan nahi du udal langileen kolektibo bat modu onartezinean kanpoan uzten direla, beren polizia-eginkizunak ustez salbuespen bat direlakoan. Horrek langile guztientzako eskubide eta betebeharren beharrezkoa den parekatzea desorekatzen laguntzen du.

Ordenamendu juridikoaren gainerakoak aipamena egiten die Segurtasun Indar eta Kidegoen 2/1986 Lege Organikoaren 51. artikuluari eta toki araubidearen araudiari.

24. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

25. artikulua aldatzeko zuzenketa. Tokiko Polizia Zerbitzuak.

Bigarren apartatua aldatzen da:

“2. Tokiko polizia zerbitzuetako langileei foru lege honen IV. tituluan aurreikusita dagoen Nafarroako Polizietako langileen Estatutuan ezarritakoa aplikatuko zaie”.

Zioak: Nafarroako Polizie buruzko Foru Lege proposamenak ezartzen du toki entitateei komeni zaien guztian, udal agenteek poliziaren berezko betebeharrak eduki ahalko dituztela, baina betebeharrak batera berez joan beharko luketen eskubide eta babesak eduki gabe.

Honako eskubide hauek kentzen zaizkie: igorak, prestakuntza, legelarien laguntza Administrazioaren kontura izatea, kaltegabatasuna, bitarren jarduera, erretiro aurreratua...

25. ZUZENKETA**GEROA BAI ETA EH BILDU-NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

25.h) artikulua aldatzeko zuzenketa.

h) letra aldatzea proposatzen da, honako testu honekin:

“h) Kasuko toki entitateek esleitu edo emandako eginkizunak, polizialak ez direnak, ordenamendu juridikoan xedatutakoarekin bat eta lanpostuaren baldintzen barruan daudenak.”

Zioak: Arauaren halako interpretazio bat egitea, modu zabalean ahalbidetuko lukeena lanpostuak berezko dituzten beste eginkizunak, eginbeharrak edo erantzukizunak esleitzea, polizia-izaerakoak zein bestelakoak, zeinak lanpostuaren deialdian zehaztuko bailirateke.

26. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“4. Tokiko Poliziak edo Tokiko Polizietako Zerbitzuak osatzen dituzten lanpostuak zehaztea eta haien plantilla organikoak edo lanpostuen zerrendak onestea toki entitateari dagokio, toki

administrazioaren gaineko legerian ezartzen den organoaren bitartez”.

Zioak: Udal agenteak ez uztea balizko elkar-tze-akordioetatik kanpo.

27. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

4. Tokiko Poliziak osatzen dituzten lanpostuak zehaztea eta haien plantilla organikoak edo lanpostuen zerrendak onestea toki entitateari dagokio, toki administrazioaren gaineko legerian ezartzen den organoaren bitartez. Langile horien zerrendan zenbaki profesionalen bidezko identifikazioa agertuko da.

Zioak: Tokiko polizietako langileen identitatea gorderik mantentzeko.

28. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordez ondoko testua proposatzen da:

“4. Toki entitateetako poliziak osatzen dituzten lanpostuak zehaztea eta haien plantilla organikoak edo lanpostuen zerrendak onestea toki entitateari dagokio, toki administrazioaren gaineko legerian ezartzen den organoaren bitartez.

Toki entitateetako polizietako langileen zerrenda plantilla organikoan agertuko da identifikaturik, zenbaki profesionalarekin”.

Zioak: Toki administrazioak edo tokiko polizia, edo tokiko poliziako zerbitzua dauka, udal agenteek emana.

29. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

28 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“28. artikulua. Plantilla organikoak eta lanpostuen zerrendak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek beren plantilla organikoetan eta lanpostuen zerrendetan sartuko dituzte beren Poliziako langileei dagozkien lanpostuak.

2. Plantilla organikoetan eta lanpostuen zerrendetan Polizia bakoitzeko lanpostuak jasoko dira, behar bezala sailkatuta, eta alderdi hauek gutxienez adierazita:

- a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.
- b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.
- c) Zein unitate organikoren menpe dauden.
- d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen kokatuta.
- e) Zein enplegu edo kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.
- f) Lanpostuak betetzeko sistema.
- g) Lansari osagarriak.
- h) Bigarren jarduerako lanpostuak, erregela-mendu bidez ezartzen direnak.
- i) Sartzeko moduak.
- j) Sartzeko eta jarraitzeko bete beharrekoak.

3. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Foruzaingoaren plantilla organikoa onetsi eta aldatzea, bai eta hura osatzen duten lanpostuak zehaztea ere. Plantilla organikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Nafarroako Foruzaingoko langileak beren lanbide zenbakiarekin identifikatuta ageriko dira plantilla organikoan.

4. Tokiko Poliziak osatzen dituzten lanpostuak zehaztea eta haien plantilla organikoak eta lanpostuen zerrendak onestea toki entitateari dagokio, toki administrazioaren gaineko legerian ezartzen den organoaren bitartez”.

Zioak: Uste dugu testu hori hobeki dagokiola artikuluen izenburuari. Kontzeptu bereizi gisa agertzen dira —eta hala dira— plantillak eta lanpostuen zerrendak.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

35.3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago zertan euskarekin lotutako alderdiak xedatu, beste lege batzuetan jasota baitaude.

31. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

35. artikuluen 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordeztu ondoko testua proposatzen da:

“Nafarroako Administrazio Publikoek, beren plantilla organikoen bidez, behar diren neurriak hartuko dituzte sustatze aldera euskararen ezagutza betebeharra edo merezimendua izan dadila lanpostu jakin batzuetan, euskararen erabilera arautzen duen legerian ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Euskararen balorazioa baldintza bat izan daiteke, lanpostu elebidunen zehaztapenari buruz ari bagara; lanpostu elebidun horiek ezartzen dira hizkuntza-eremua alde batera utzita (103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan).

Merezimenduen balorazioa sartzen da euskara baloratzeko modalitate gisa, administrazio eskudunak zehazten dituen lanpostuetan.

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

35. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“35. bis. 1. Nafarroako poliziak beren menpean dituzten administrazioek bermatuko dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan bildutakoak aplikatzen direla kidego horietan sartzeko hautapen prozesuetan eta kidego horietako lanpostuak betetzean eta haien sustapenean, eta bultzatuko dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin segurtasun zerbitzu publikoan.

2. Emakumeak polizia-kidegoetan sustatzeko planak eginen dira, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzeko haietara sartzean, sustapenean eta administrazio-egoeretan.

Plan horiek, kasuan kasuko plangintza-aldirako, ezarriko dute zenbatekoa izanen den emakumeen portzentajea sartu nahi denek poliziako plantillan, emakumeak azpiordezkakuta egon daitezen zuzentzeko, bai eta poliziaren eraginkortasuna areagotzeko ere, eta emakumeen aldeko

berariazko neurriak hartu ahalko dituzte izatezko desberdintasun-egoerak zuzentzeko, halakoek dirauten bitartean.

Neurri horiek arrazoizkoak eta proportzionatuak izanen dira, bilatzen duten helburuari dagokionez”.

Zioak: Zioen azalpenak generoko perspektibari buruzko aipamen bat jasotzen badu ere, legearen artikuluetan zehar inongo neurri zehatzik ez dago perspektiba horri buruz edo hura garatzeko, konponbidea bilatu behar zaion gabezia bat dela jota.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

37. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“37. artikulua. Agente enpleguan sartzea.

Agente enpleguan sartzeko, Nafarroako Polizietan sartzeko hautaprobak egin beharko dira.

Tokiko Polizia duten toki entitateek lanpostu hutsen % 30 erreserbatzen ahalko dituzte Nafarroako beste Tokiko Polizia edo Nafarroako Tokiko Polizietako Zerbitzu batzuetako langileen arteko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Horrelako izangaiak azkeneko Tokiko Polizian bost urte benetan lanean eman izana eskatuko zaie. Langile horiei Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako prestakuntza ikastaroa baliozkotzeari dagokionez 34.3. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak txanda irekiko lanpostuei gehituko zaizkie”.

Zioak: Udal agenteak kanpo ez uztea.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“1. Deitutako lanpostu hutsen artean, inspektoreordearen enpleguak agentearen edo agente lehenaren enplegua dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira, oposizio-lehiaketa eginez.

Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, agentearen edo agente lehenaren enpleguetan, edo bi enplegu horietan metatutako esperientzia batuz, gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea eskatuko da, bai eta B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa ere”.

Zioak: Aukera zabaltzea Nafarroako polizietako langile gehiagori.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“40. artikulua. Inspektorearen enpleguan sartzea.

Inspektore kategorian sartzeko prozedura eta modu hauek erabiliko dira:

a) Lanpostuetako bi heren barne igoeraren bidez, kategoria-igoerarako lehiaketaren prozedura erabiliz, Nafarroako Polizietako inspektoreordeen edo lehen agenteen artean, baldin eta hiru urtetik gorako antzintasuna badute enplegu horretan eta B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan xedatutakoarekin bat.

Kategoria-igoerarako lehiaketa prozedurek proba teoriko-praktiko baztertzaila bat izan beharko dute, gutxienez, lortu nahi den enpleguaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa. Era berean, proba psikotekniko ez baztertzaila ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesiofikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

b) Lanpostuen heren bat Nafarroako Polizietan sartzeko hautaprobak, foru lege honen 34. artikuluan aipatzen direnak, eginez beteko da, B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa izan eta deialdian ezartzen diren gainerako baldintzak betetzen dituztenen artean. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoera bidez beteko dira”.

Zioak: Aukera zabaltzea Nafarroako polizietako langile gehiagori.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikulua b) apartatua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“b) Lanpostuen heren bat Nafarroako Polizietan sartzeko hautaprobak, foru lege honen 34. artikuluan aipatzen direnak, eginez beteko da, B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa izan eta deialdian ezartzen diren gainerako baldintzak betetzen dituztenen artean. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoera bidez bete-

ko dira. Nafarroako Polizia Kidegoetatik etorri eta jardunean dauden izangaien kasuan, barne igoerako txandako izangaientzat kasuko deialdian ageri diren proba berak egin beharko dituzte, kategoriaz igotzeko lehiaketa-prozeduraren barruan”.

Zioak: Foruzaingoari ez zaio diskriminazio negatiborik egiten.

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

41.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“41. artikulua. Komisario enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, komisarioaren enpleguak inspektorearen edo inspektoreordearen enplegua dutenen barne igoera bidez beteko dira, oposizio-lehiaketaren prozedura erabiliz.

Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, gutxienez hiru urteko antzinatasuna eskatuko da inspektoreordearen edo inspektorearen enpleguetan, edo bien baturan, bai eta A mailan sartzeko eskatutako titulazioa ere”.

Zioak: Inspektoreordearen lanpostutik ere sartu ahal izatea.

38. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

42.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“42. artikulua. Komisario nagusiaren enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, komisario nagusiaren enpleguak inspektorearen edo komisarioaren enplegua dutenen barne igoera bidez beteko dira, kategoria-igoerarako lehiaketaren prozedura erabiliz.

Kategoria-igoerarako lehiaketa prozedurek proba teoriko-praktiko baztertzaille bat izan beharko dute, gutxienez, lortu nahi den enpleguaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa. Era berean, proba psikotekniko ez baztertzailleak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesioerako zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

Lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da gutxienez hiru urteko antzinatasuna izatea inspektorearen edo komisarioaren enpleguan edo bien

baturan, bai eta A mailan sartzeko eskatutako titulazioa ere”.

Zioak: Inspektorearen lanpostutik ere sartu ahal izatea.

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

44.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“4. Enplegu desberdinetarako sarrera-probak objektiboak eta teoriko-praktikoak izanen dira, eta izangaiak aurretik ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak; halaber, aurretik onetsitako eta kasuko deialdian argitara emandako gai-zerrenda bati buruzkoak izan beharko dira”.

Zioak: Kontua da segurtasuna ematea lanpostuen deialdietara aurkeztu diren izangaiak.

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2. Nagusiki, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta aurreko apartatuko c) letran aipatzen den edozein zentrok edo establezimenduk egiten ditu langileen prestakuntza eta parte-hartzea Nafarroako poliziak eta tokiko poliziaren laguntzaileak hartzeko hautapen prozesuetan”.

Zioak: Toki poliziako zerbitzuak jada Nafarroako poliziak baitira eragin guztietarako.

41. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49.1 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“1. Izendapen askea erabili ahalko da soilik bete beharreko lanpostuak berekin unitate organiko baten burutza badakar. Salbuespen kasuan, sistema hori erabiliko da bete beharreko eginkizunengatik konfiantza berezia eskatzen duten lanpostuetan, inolaz ere plantillaren % 1ekoa gainditu gabe.

Izendapen libreaz bete beharreko lanpostuak zein diren erregelamenduz ezarriko da, eta ingu-

ruabar horrek kasuko plantilla organikoan jasota egon beharko du”.

Zioak: Ez du ematen zilegi denik izendapen librearen sistemaz bete beharreko lanpostuen igoera hori. Plantillaren % 8 halakoak direla ezarritz gero, esaten ariko ginateke gaur egun 90 lanpostu inguru direla, eta igoera horrek ez du inolako justifikaziorik, dagoen plantillari errepartuta.

42. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

49. artikulua aldatzeko zuzenketa. Izendapen libre.

Lehenengo apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta izendapen libreko lanpostuak mugatzen dira; hori dela eta, lehenengo apartatu beraren hirugarren paragrafoak kendu beharra dago:

“1. Izendapen askea erabili ahalko da soilik bete beharreko lanpostuak berekin unitate organiko baten burutza badakar; unitate horiek alorrek eta dibisioak izanen dira.

Izendapen libreaz bete beharreko lanpostuak zein diren erregelamenduz ezarriko da, eta inguruar horrek kasuko plantilla organikoan jasota egon beharko du.

2. Lanpostua izendapen librearen sistemaren bitartez betetzen ari den langilea izendatu zuen organoak libreki kentzen ahalko du lanpostu horretatik. Hala gertatuz gero, utzi egingen dio lanpostu horri dagozkion osagarriak jasotzeari, eta, berehala, erregelamenduz ezartzen den lanpostura itzuli beharko du”.

Zioak: Kontuen Ganberak Foruzaingoari buruz 2014an egindako txostenean, behin eta berriz aipatzen da nolako abusua gertatzen den polizia-kidegoaren barruan lanpostu batzuetarako izendapenak egiterakoan, merezimendu-, gaitasun- eta berdintasun-printzipioak kontuan hartu gabe.

Horrenbestez, aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, egokia da izendapen askeko lanpostu horiek mugatzea.

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49.1 artikulua hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Izendapen librearen sistema bidez betetzeko erreserbatutako lanpostuen kopurua ez da plantilla osoko 100eko 5etik gorakoa izanen”.

Zioak: Foru lege proposamenean jasotako ehunekoa txikiago egitea.

44. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

49.2 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“2. Lanpostua izendapen librearen sistemaren bitartez betetzen ari den langilea izendatu zuen organoak libreki kentzen ahalko du lanpostu horretatik. Hala gertatuz gero, utzi egingen dio lanpostu horri dagozkion osagarriak jasotzeari, eta, berehala, jatorrian esleituta zuen destinora itzuli beharko du. Horretarako, funtzionario guztiei jatorrizko lanpostu bat esleitu beharko zaie”.

Zioak: Polizia bakoitzak jatorrizko lanpostu bat izanda, saihestuko litzateke izendapen askea erabiltzea bide arruntez kanpoko ezkutuko lekualdatze baterako.

45. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

50. artikuluari 4. eta 5. puntuak gehitzeko zuzenketa.

4. Nafarroako polizia kidegoetako kideen igoerarako ikastaroak egiten ari diren bitartean egoera horrek irauten duen denborarako zerbitzu berezietako egoeran deklaraturako izangaiek beren jatorrizko lanpostuan aitortuta dauzkaten ordainsari osoak jasoko dituzte deialdia egiten duen administrazio publikoarengandik.

5. Nafarroako Foruzaingoko kideak zerbitzu berezietako egoeran daudela deklaratu ahalko da, eta erdietsitako titulazio akademikoan lanbide-jardunaren bidez beren buruarentzako prestakuntza eta sakontze-jarduerak egitea enkargatuko zaie, jarduneko zerbitzuko egoeran betetzen dituztenez bestelakoak eta goragoko maila edo talde bateko-

ak, eta aplikatzekoa izanen zaie apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretu indarduna edo haren ordezkoko araua.

Zioak: Poliziek beren ordainsari-eskubideak kalteturik ez ikustea prestakuntza-ekintzak egiten dituzten bitartean.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

54.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“4. Kasu berezietan, eta behar bezala arrazoituta dagoen bitartean, lan-egutegiak eta zerbitzu taulak aldatu ahalko dira, larrialdiko beharrezane, segurtasun publikokoei edo prestakuntzakoei jarraituz. Aldaketa horrek ezin izanen du arbitrarioa izan, kasuko alorreko burutzak hartarako arrazoiak eman beharko ditu eta idatziz jakinaraziko die hori interesdunei.

Nolanahi ere, % 5ean finkatzen da lan-egutegia eta -taulak aldatu ahalko diren urteko lanaldi planifikatuaren gehieneko muga, unitate operatibo desberdinetako arduradunek segurtasun publikoko beharrak alegatuta.

Lan-egutegiaren eta zerbitzu-koadranteen balizko aldaketa hori unitate batean gauzatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izenen da haren kide diren polizia-funtzionario guztiek aipatutako unitatean agortu izana ezarritako lan jardunaldi gehigarriak, sindikatu-erakundeekin izenpetutako akordioetan araututa daudenak”

Zioak: Kontua da malgutasunak ordu-poltsarekiko izaera subsidiarioa izatea.

47. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

54. artikulua aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordezkondoko testua proposatzen da:

“1. Nafarroako polizietako langileen lanaldia, urteko konputuan, Nafarroako administrazio publikoetako gainerako funtzionarioek daukatenaren berdina izanen da: 1592 lanordu efektibo.

2. Aurreko apartatuan finkatutako lanaldiaren urteko lanorduen kopuruaren gainean kasuko konpentsazioa aplikatu ondoren, ondoren aipatzen diren txandetako araubideetako batean lan egiten duten Nafarroako Foruzaingoko langileek lanpos-

tuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

a) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

b) Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

c) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

d) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira unitate operatiboak dituzten Nafarroako polizietako ordutegien araubide berariazkoak, haien lana dela-eta beharrezkoa denean, malgutasun eta prestasun beharrak kontuan hartuta.

4. Kasu berezietan, lan-egutegiak eta zerbitzu taulak aldatu ahalko dira, larrialdiko beharrezane edo prestakuntzakoei jarraituz. Aldaketa horrek arrazoitua izan beharko du, eta idatziz helaraziko zaie interesdunei.

Foru lege honen ondoreetarako, larrialditzat hartuko da bat-batean sortzen den egoera, pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa edo ondasunak arrisku handian jartzen dituen edo kaltetzen dituen eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskua eten edo kalteak murrizte aldera.

5. Nafarroako Polizietako langileen opor, lizentzia eta baimen araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko gainerako langileena izan da”.

Zioak: Baldin eta artikulua soilik Foruzaingoa-ren lanaldiei eta ordutegiei buruzkoa bada, jaso bedi artikulua enuntziatua.

4. apartatuan “segurtasun publikoko” arrazoiak ezartzea urteko egutegiko lanaldien % 5era arte aldatu ahal izateko, oso urrun dago neurriak ustez duen aparteko izaera edukitzetik, eta juridikoki zehaztu gabea den elementu bat sartzen du, zeinak arbitrariotasuna ekar bailezake egutegiak eta zerbitzu-taulak aldatzerakoan. Gainera, polizien laneko bizitza, familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen aurkakoa da.

Larrialdiei buruzko definizioa sartzen da, bat datorrena Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeak jasotakorekin.

48. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

54.3 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“3. Erregelamendu bidez ezarriko dira ordu araubide berariazkoak unitateetan, haien lana dela-eta beharrezkoa denean, malgutasun, ordutegiaren aldagarritasun eta prestasun beharrak kontuan hartuta”.

Zioak: Sinatutako akordioarekin koherentea izateko eta hartan jasotako kasu desberdinak jasotzeko.

49. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

54.4 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“4. Kasu berezietan, eta behar bezala arrazoituta dagoen bitartean, lan-egutegiak eta zerbitzu taulak aldatu ahalko dira soilik larrialdiko eta prestakuntzako arrazoiengatik. Interesdunei idatziz emanen zaie aldaketa horren berri.

Foru lege honen ondoreetarako, larrialditzat hartuko da bat-batean sortzen den egoera, pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa edo ondasunak arrisku handian jartzen dituen edo kaltetzen dituen eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskuak ahal den guztian gutxitzeko eta kalteei aurre egiteko”.

Zioak: Egutegiak segurtasun publikoko arrazoiengatik aldatzeko aukerak (horixe baita polizien lanaren xedea) berekin dakar erabateko prestasuna edukitzea langileak administratzeko; hori, halere, ez da muga batekin justifikatuko. Pisuzko arrazoiak izan beharko dute, eta guztiz justifikatuak, aldaketa hori arrazoitzen dutenak, eta ez, oro har, haien lanaren beraren xedea.

Gainera, uste dugu egutegiak segurtasun publikoko arrazoiengatik aldatzeko beharrian hori guztiz aserik egonen litzatekeela funtzionarioek beren borondatez atxiki dakizkioken ordu-poltsarekin, zeina lege honetan agertzen baita, eta nolanahi ere, polizia-deiaren figurarekin.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

54. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lanaldiak eta ordutegiak.

Foruzaingoari buruzko aipamen guztien ordeztu “Nafarroako poliziak” terminoa erabiltzen da; hala-ber, lan-egutegiak eta zerbitzu-taulak aldatu ahal izateko kasuak mugatzen dira, eta laugarren apartatuko bigarren paragrafoaren ordeztu honako testu hau erabiltzen da:

“1. Nafarroako Polizietako langileen urteko lanaldiak 1.592 benetako lanordu izanen ditu.

2. Aurreko apartatuan finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean behar den konpentsazioa aplikatu ondoren, ondoren aipatzen diren txandetako araubideetako batean lan egiten duten Nafarroako Polizietako langileek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

a) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

b) Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

c) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

d) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.

4. Kasu berezietan, eta behar bezala arrazoituta dagoen bitartean, lan-egutegiak eta zerbitzu taulak aldatu ahalko dira, larrialdiko beharrian edo prestakuntzakoei jarraituz. Aldaketa horrek arrazoitua izan beharko du, eta idatziz helaraziko zaie interesdunei.

Foru lege honen ondoreetarako, larrialditzat hartuko da bat-batean sortzen den egoera, pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa edo ondasunak arrisku handian jartzen dituen edo kaltetzen dituen eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskua eten edo kalteak murrizte aldera.

5. Nafarroako Foruzaingoko langileen opor, lizentzia eta baimen araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko gainerako langileen izanen da”.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen dugu hobekuntza horiek egitea.

51. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

57. artikulua B puntuari e) letra gehitzeko zuzenketa; hona hemen testua:

“B. Ordainsari osagarriak:

- a) Berariazko osagarria.
- b) Lanpostuaren osagarria.
- c) Prestasun bereziko osagarria.
- d) Burutzaren osagarria.
- e) Txandakako lanaldiaren osagarria”.

Zioak: Txandakako lanaldiak berariazko izaera bat badu, zeinak osagarri propioa eskatzen baitu; hori dela eta, hura benetan egiten duenei esleitu beharko zaie, eta ez da beste osagarri baten barruan sartu behar.

Ordainsari-kontzeptu hori lanpostu osagarriaren soldata-masan sartzeak berekin ekarriko luke, “Foruzaingoan ordezkariak duten sindikatuen eta izenpetzen duten talde politikoaren arteko akordioaren amaierako dokumentua” izenekoan jasotakoaren arabera, aldeak konpromisoa hartzen dutela geroko erregelamendu-garapen batean sartzeko une hauetan jasotzen ez duten funtzionarioen mailako soldataren % 6ko gehigarria (akordioaren 4. puntua), zeren eta egun daukaten lan-araubidearekin horretarako eskubiderik ez baitute. Hau da, guztiz aldatuko litzateke ordainsari-osagarri horri hasieran eman zitzaion xedea.

52. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

57.1.B.c) artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Dedikazio eskusiboko osagarria”.

Zioak: Ez dugu uste egokia denik kontzeptu berri bat sartzea, zeren eta Nafarroako funtzio publikoaren estatutuan aitortzen den dedikazio eskusibokoaren antzekoa baita, zeina guztiz araututa baitago; izan ere, interpretazioa dela-eta konparaziozko bidegabekeriak eta arazoak sortuko lirakeke. Gainera, horrela jasota dago Funtzio Publikoaren Departamentuak igorritako txosten batean.

Ez dago justifikatuta horrela arautzea eta mailako soldataren % 30erainoko zenbatekoa esleitzea. Osagarri hori eskusiboki komisario nagusia-

ren, komisarioaren edo inspektorearen eginkizunak betetzen dituztenentzat gordeta egoteak pentsarazten digu soldata-igoera desproporzionatu bat inolako justifikaziorik gabe egitea justifikatzeko bitarteko bat baizik ez dela. Gainera, horri burutzaren osagarria gehitu behar zaio, zeina eskala hauei ere bai baitagokie; izan ere, osagarri horrek % 10erainoko igoera izanen du. Bien batura guztiz proportziorik gabekoa da, eta arrazoirik ez du.

53. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

57. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ordainsarien kontzeptuak.

Proposatzen dugu prestasun bereziko osagarria izenaren ordezkari, dedikazio eskusiboko osagarria izena erabiltzea.

“1. Nafarroako Polizietako langileek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A. Norberaren oinarritzko ordainsariak:

- a) Mailari dagokion hasierako soldata.
- b) Graduari dagokion ordainsaria.
- c) Antzintasun saria.

Norberaren oinarritzko ordainsariak eskuratutako eskubidea dira, funtzionario izaerari daxteklona.

B. Ordainsari osagarriak:

- a) Berariazko osagarria.
- b) Lanpostuaren osagarria.
- c) Dedikazio eskusiboko osagarria.
- d) Burutzaren osagarria”.

Zioak: Zentzurik ez du funtsean lehendik dagoen dedikazio eskusiboko osagarriaren berdina den osagarri batentzat beste izen bat asmatzea, zeren eta bien kasuan edukia ia berdina baita.

Horrenbestez, egokiagoa da Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen Estatu-tuan lehendik existitzen zen osagarriaren izenari eustea, zeren hartara aplikatzekoa izanen baitaia indarrean egon den ia hogeita hamar urteetan metatutako jurisprudentzia.

54. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

58 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“58. artikulua. Berariazko osagarria Nafarroako Polizietako langile guztiei ordainduko zaie, eta haren zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 45ekoa izanen da.

Osagarri horrek polizien bateraezintasuna ordaintzen du, bai eta polizia-eginkizunak berezko duen arriskua ere.

Ondorio horietarako, polizia-bateraezintasuntzat ulertuko da irabazi asmoko beste edozein jardura egitea, sektore publikoan zein pribatuan, baldin eta jardura horrek eragozten edo kaltetzen badu esleitutako betebeharrak betetzea edo inpartzialtasun edo independentzia konpromisoan jartzen baditu; bateraezintasuna etorriko da jardura edo betetzen den lanpostuaren mailatik, edo jarduketarako oinarritzko printzipioen aurkakoa izate-tik. Nolanahi ere, Barne zuzendari nagusiaren edo kasuan kasuko organo eskudunaren alde aurreko baimena beharko da”.

Zioak: Koherenteagoa da eta hobeki ezkontzen da polizia-bateraezintasunaren kontzeptuarekin, zeina Estatuko eta autonomia erkidegoetako segurtasun-kidego eta -indar guztietan baitago eta arloari buruzko epaietan abalaturik baitago. Lanpostu osagarria jada ordainduta dauden kontzeptuak uzten dira kanpoan. Gai baketsua eta adostua da osagarri horretan bi kontzeptuak sar daitezela Nafarroako gainerako funtzionarioentzat ezarritako proportzioan.

55. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

58. artikulua aldatzeko zuzenketa. Osagarri berariazkoa.

Proposatzen da 58. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako bateraezintasuna egokitzea, lanpostuaren izaerari egokitzuz.

“Berariazko osagarria Nafarroako Polizietako langile guztiei ordainduko zaie, eta haren zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 45ekoa izanen da.

Berariazko osagarriak eginkizun polizialari datxekion berezitasun guztiak saritzen ditu, besteak

beste, bateraezintasun poliziala, arriskua, dedikazioa, betebeharrak eta erantzukizunak.

Ondorio horietarako, polizia-bateraezintasuntzat ulertuko da irabazi asmoko beste edozein jardura egitea, sektore publikoan zein pribatuan, baldin eta jardura horrek eragozten edo kaltetzen badu esleitutako betebeharrak betetzea edo inpartzialtasuna edo independentzia konpromisoan jartzen baditu; bateraezintasuna etorriko da jardura edo betetzen den lanpostuaren mailatik, edo jarduketarako oinarritzko printzipioen aurkakoa izate-tik. Nolanahi ere, Barne zuzendari nagusiaren edo kasuan kasuko organo eskudunaren alde aurreko baimena beharko da”.

Zioak: Polizia-lanpostuak berekin dakarren bateraezintasuna ezin da dedikazio eskusiboaren pare jarri, proposamenean bilatzen den bezala, are gutxiago proposamenak bateraezintasunen araubide laxoagoa dakarkienean prestasun bereziko osagarria jasotzen dutenei. Hori dela eta, zuzenena eta egokiena da bateraezintasunak mugatzea polizia-lanetan interferentzia egiten duten jardueretara.

56. ZUZENKETA**PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

59. artikulua aldatzeko zuzenketa; hona hemen testu berria:

“Nafarroako Polizietako langileek lanpostuko osagarria jaso dezakete lanpostu bakoitzari dagozkion ezaugarriak saritzeko, hauek alegia: eskatutako prestakuntza tekniko eta fisiko berezia, zailtasun maila, lanpostuari dagozkion ordutegien araubidea, nekagarritasuna, arrisku berezia, dedikazio berezia eta erantzukizun berezia. Osagarri horren zenbatekoa ez da izanen mailari dagokion hasierako soldataren % 75etik gorakoa, eta erregelamenduz ezarriko da, lanpostu desberdinen balorazioa eta azterketa egin ondoren”.

Zioak: “Txandakako lana” kentzen da. Txandakako lanaldiak berariazko izaera bat badu, zeinak osagarri propioa eskatzen baitu; hori dela eta, hura benetan egiten duenei esleitu beharko zaie, eta ez da beste osagarri baten barruan sartu behar.

Ordainsari-kontzeptu hori lanpostu osagarria-ren soldata-masan sartzeak berekin ekarriko luke, Foruzaingoko sindikatu profesionalen eta talde parlamentario batzuen artean adostutako “Erregelamenduen garapenerako oinarritzko akordioa” deitutakoan jasotakoaren arabera, une hauetan hala-

korik jasotzen ez duten funtzionarioen mailako soldataren % 6ko gehigarria gaineratzea, zeren eta egun daukaten lan-araubidearekin horretarako eskubiderik ez baitute. Hau da, guztiz aldatuko litzateke ordainsari-osagarri horri hasieran eman zitzaion xedea.

57. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikulua azken paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako hau da testua:

Osagarri horren zenbatekoa ez da izanen mailari dagokion hasierako soldataren % 75etik gorakoa, eta erregelamenduz ezarriko da, lanpostuen balorazioa eta zerrenda egin ondoren.

Zioak: Gure ustez, koherenteagoa da 28. artikuluekin.

58. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa; azken paragrafo gisa honako testua gehituko da:

“Kontzeptu horiengatiko ordainsarietan enplegu bereko lanpostuen arteko gehieneko aldeak ezin izenen du gainditu % 15a”.

Zioak: Saihestea enplegu bereko lanpostuen artean proportziorik eta justifikaziorik gabeko gehiegizko aldea egon dadila.

59. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

60 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“60. artikulua. Dedikazio eskusiboko osagarria

Dedikazio eskusiboko osagarria jasoko duten lanpostuak edo enpleguak dira haien eginkizunengatik prestasun eta lokalizazio etengabea edukitzea edo lanarekin etengabe harremanetan egotea eskatzen dutenak.

Osagarri horren zenbatekoa ez da izanen mailari dagokion hasierako soldataren % 20tik gorakoa, eta erregelamenduz ezarriko da lanpostuen balorazioaren eta zerrendaren bitartez.

Osagarria jasotzen dutenek erabateko prestasunez eta dedikazio erabateko eta osoz emanen dituzte beren zerbitzuak, eta ezin izanen dira irabazi-asmoko beste inolako jardueratan aritu, ez sektore publikoan ez pribatuan, salbu eta unibertsitateko irakaskuntzan eta norberaren eta familiaren ondarearen administrazioan.

Dedikazio eskusiboko osagarria jasotzea eta aparteko orduak sortzea bateraezinak dira”.

Zioak: Gehiegizkotzat jotzen da osagarri horri esleitutako zenbatekoa, zeren eta aurreko artikuluan jada baloratzen direnen antzeko ezaugarriak baloratzen baitira; horrekin, balorazio bikoitzak edo kontzeptu berak modu bikoiztuan ordain daitezen saihestu nahi dira.

60. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

60. artikulua aldatzeko zuzenketa. Dedikazio eskusiboko osagarria.

Artikulu ia guztia beste modu batera idaztea proposatzen da, osagarriaren izena, jaso beharreko portzentajea eta bateraezintasunen araubidea aldatuz:

“Bateraezintasuneko osagarria erregelamenduz esleituko zaie halakorik eskatzen duten lanpostuei, haiei dagozkien eginkizunen izaeraren arabera.

Dedikazio bereziko osagarria jasoko duten enplegu edo lanpostuak dira haien eginkizunengatik prestasun eta lokalizazio etengabea edo lanarekin etengabe harremanetan egotea eskatzen dutenak. Erregelamendu bidez osagarri hori esleitura dauzkaten enplegu edo lanpostuetarako, berariazko osagarria mailari dagokion hasierako soldataren % 65ekoa izanen da, eta hartan polizia-bateraezintasuna egonen da sarturik.

Osagarria jasotzen dutenek erabateko prestasunez eta dedikazio erabateko eta osoz emanen dituzte beren zerbitzuak, eta ezin izanen dira irabazi-asmoko beste inolako jardueratan aritu, ez sektore publikoan ez pribatuan, salbu eta unibertsitateko irakaskuntzan eta norberaren eta familiaren ondarearen administrazioan.

Dedikazio eskusiboko osagarria jasotzea eta aparteko orduak sortzea bateraezinak dira”.

Zioak: Kontua da proposatu den prestasun bereziaren osagarriaren ordean dedikazio eskusiboko osagarria erabiltzea. Gure ustez, Nafarroako

Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan hari buruz ematen den definizioa eduki aplika dakioke kasuari.

61. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 61.bis artikulua, gehitzeko zuzenketa. Honako izenburua eta testu hauek izanen ditu:

“61. bis artikulua. Txandakako lanaldiaren osagarria

Errotazio-txanden arabera araubidean lan egiten duten langileek –halakotzat ulerturik ordutegia lanaldien heren batean baino gehiagotan aldatu behar izatea dakartenak, hiru hilabetez behingo kontaketa orokorra eginda– dagokien taldeko hasierako soldataren % 6ko ordain ekonomikoa jasoko dute”.

Zioak: Osagarri hau ordainsari osagarriekin buruzko apartatua sarturik dauden gainerako osagarrietatik bereizi behar da, berariazko izaera baitauka.

62. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

62. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

Enplegu edo kategoria batean behar adina funtzionario ez dagoenean eta zerbitzuaren beharrak direla-eta halakoak behar direnean, organo eskudunak aldeztu aurretik izendatuta eta lanpostua erreserbatuta, Nafarroako polizietako langileek behin-behineko goragoko hurrengo mailako enplegu bat bete ahal izan dute, baldin eta lanpostu hutsik badago eta kasuko igoera-prozeduran onartua izateko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Salbuespen kasuetan, eta baldintza horiek betetzen dituen inongo funtzionariorik ez dagoenean, antzinatearen dagozkion baldintzak salbuesti ahaliko dira, edo titulazioari dagozkionak, edo biak, aurreko paragrafoan aipatzen den izendapenaren ondorioetarako.”

Zioak: Udal poliziak eta tokiko polizia zerbitzuak kanpoan ez uztea.

63. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63.2 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“2. Erregelamenduz ezarriko dira behar diren zuzenketa neurriak, Nafarroako Polizietako langileek jasotzen dituzten ordainsari artikuluen honen aurreko apartatua aipatutako eskala desberdinen arteko proportzionaltasun-adierazleak finkatuz, oinarriko ordainsariak –antzinatea eta gradua kenduta–, ordainsari osagarriak eta foru lege honen 57.1 artikuluko C apartatuko g) letran jasotako ordainsari aldakorrak barne hartuta”.

Zioak: Proportzionaltasuneko adierazleak ezarritzea, bai modu bertikalean, bai horizontalean, sailheste aldera ordainsarien balizko igoeretan eskala batzuek beste batzuek baino igoera handiagoak izatea.

64. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Erregelamenduz egiten dira aurreko artikuluetan aipatzen diren ordainsari osagarrien garapena eta atxikipena Nafarroako poliziak osatzen dituzten enplegu eta unitate desberdinei”.

Zioak: Nafarroako poliziei buruzko foru lege proposamen honek toki entitateen poliziak arautuko dituen eta Foruzaingorekin batera estatutu batean sartzea ere iristen denez, nahiz eta administrazio desberdinetakoak izan, aipatutako ordainsari osagarrien erregelamenduzko garapena izan da soilik eta eskusiboki mugatu Nafarroako polizietako batera, hau da, Foruzaingora.

65. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

69. artikulua aldatzeko zuzenketa. Bigarren jarduerako egoera.

Bosgarren apartaturako honako testu hau proposatzen da:

“5. Bigarren jarduerako egoera administratiboa dauden Nafarroako Polizietako langileek beren

kategoriari dagozkion oinarritzko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, bai eta egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriak ere.

Bigarren jardueraren egoerara pasatzea ofizioz egiten bada, Administrazioak atzematen duelako langilearen baldintza fisikoak edo psikikoak nabarmen gutxitu direla, eta langilearen lanpostu berriaren ordainsariak txikiagoak badira jatorrizko lanpostukoak baino, langile horri ordainsari horien artean dagoen aldearen adinako konpentsazio bat ordainduko zaio, eta hura kalkulatzeko honela jokatu da kasuan-kasuan:

a) Bigarren jarduerara pasatzea istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorioz gertatzen denean: Bi lanpostuek esleitura dauzkaten ordainsari guztia zenbatuko dira, aldizkakoak ez direnak barne.

a) Bigarren jarduerara pasatzea beste arrazoi batzuen ondorioz gertatzen denean:

Kontuan hartuko dira soilik bi lanpostu horiek esleitura dauzkaten ordainsari osagarriak, arrisku bereziko osagarria kenduta; horrenbestez, ez dira inolaz ere kontuan hartuko aldizkakoak ez diren ordainsariak, aurreko paragrafoan aipatzen direnak”.

Zioak: Bigarren jarduerara pasatzea Administrazioak ofizioz egiten duen kasuetan, Administrazioak langileen baldintza fisikoak edo psikikoak nabarmen gutxitu direla atzeman duelako, Foruzaingoaren eremuan ekainaren 3ko 114/2002 Foru Dekretuan ezarritakoa ordeztan ari da; izan ere, haren bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitateko eta bere erakunde autonomoetako langileak lanerako ezintasunagatik birkokatzeko prozedura. Horrenbestez, ezin da Foruzaingorako ezarri Foru Komunitateko Administrazioako gainerrako langileetarako ezarrita dagoena baino araubide okerragoa.

66. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

74.2 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

2. “Doluzko delitu larri batengatik espetxeratze-zigorrrera zigortuta egotea epai irmoaren bidez”.

Zioak: Iruditzen zaigu hobeto egokitzen zaiola falten mailaketa-sistemari

67. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76.10 artikulua honako testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“10. Doluzko delitu larri batengatik espetxeratze-zigorrrera zigortuta egotea epai irmoaren bidez”.

Zioak: Falten mailaketarako arauturiko sistemarekiko koherentzia gordetzeagatik

68. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

81. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da idatzita:

“1. Honako hauena da falta astunen eta oso astunengatik diziplina espedienteak ireki eta zehapenak ezartzeko eskumena:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Barneko zuzendari nagusiarena.

b) Nafarroako toki entitateetako polizietan, Toki Administrazioaren gaineko legeriaren arabera eskumena duen organoarena.

2. Faltza astunak edo oso astunak egiteagatik, zehapenak ezartzeko eskumena arau hauen menpe egonen da:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Nafarroako Gobernuak izanen du zerbitzutik bereizteko zehapena ezartzeko eskumena, barne gaietako eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak falta oso astunengatik zehapenak ezartzekoa, eta Barneko zuzendari nagusi eskudunak falta astunengatik zehapena ezartzekoa.

b) Nafarroako toki entitateetako polizietan, Toki Administrazioaren gaineko legeriaren arabera eskumena duen organoa.

Zioak: Nafarroan, bi dira polizia duten administrazioak, eta toki entitateek tokiko polizia eta tokiko polizia zerbitzuak dituzte”.

69. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

83. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Diziplina-espedienteak ireki, eta falta arinak egiteagatik zehapenak ezartzeko eskumena honako hauena izanen da:

a) Nafarroako Foruzaingoa, Foruzaingoko buruarena.

b) Nafarroako toki entitateetako polizietan, kasuko tokiko poliziako buruarena”.

Zioak: Nafarroan, bi dira polizia duten administrazioak, eta toki entitateek tokiko polizia eta tokiko polizia zerbitzuak dituzte”.

70. ZUZENKETA

GEROA BAI ETA EH BILDU-NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

IV tituluko I. kapituluaren barruan, atal berri bati artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“(…) atala. Berdintasun planak

(…). artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasunaren printzipioak.

Nafarroako polizia desberdinen titulartasuna duten administrazioek horiek sartuko dituzte administrazio horien aginduzko berdintasun planetan, edo berariazko plan bat taxutuko dute kasuan kasuko polizientzat, eta horren bidez bermatuko dute sexugatiko diskriminazio zuzen edo zeharkakorik ez dela izanen, bereziki amatasunetik, familia-betebeharrak bere gain hartzetik eta egoera zibiletik eratorritakorik”.

Zioak: Alor honetan aplikagarri den araudiak adierazten du beharrezkoa dela administrazio publikoetan berdintasun planak prestatzea; hori dela eta, komenigarritzat jotzen da plan horietan edo berariaz taxututako beste batzuetan aintzat hartzea Nafarroako polizia desberdinen egoera.

71. ZUZENKETA

GEROA BAI ETA EH BILDU-NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

(…). artikulua.

1. Nafarroako polizia kidegoren bat bere mende dute administrazioek bermatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako aplikagarri den araudian jasotako aurreikuspenen aplikazioa kidegoan sartzeko hautapen prozesuetan eta kidego horietako lanpostuak betetzean eta sustapenean, eta bultzatuko dute emakumeen eta

gizonen presentzia orekatua izan dadin segurtasun zerbitzu publikoan.

2. Emakumeak polizia kidegoetan sustatzeko planak prestatuko dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko kidegoan sartzean eta lanbide-karreran. Plan horiek, kasuan kasuko plangintza-aldirako, ezarriko dute zenbatekoa izanen den emakumeen portzentajea sartu nahi denek poliziako plantillan, emakumeak azpiordezkatuta egon daitezzen zuzentzeko, bai eta poliziaren eraginkortasuna areagotzeko ere, eta emakumeen aldeko berariazko neurriak hartu ahalko dituzte izatezko desberdintasun-egoera agerikoak zuzentzeko, halakoek dirauten bitartean. Neurri horiek arrazoizkoak eta proportzionatuak izanen dira, bilatzen duten helburuari dagokionez.

3. Hautapen prozeduretako sailkapenaren ordenan gertatzen diren puntuazio-berdinketak ebatziko dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako aplikagarri den araudian ezarritako irizpideen arabera, bertan aurreikusitako kasuetan.

4. Txanda irekiko hautapen-prozeduretan, agente kategorian eta hortik gorakoetan, zehaztuko da emakumeek bete beharko litzuketen lanpostu kopurua, segurtasun zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateko helburua betetzeko, sustapen planean aurreikusitako moduan. Aipatu lanpostu kopuruak lortu nahi diren helburuen heinekoa izan beharko du, eta ezin izanen da izan deituriko lanpostuen ehuneko 30 baino handiagoa, ez eta ezartzen den arrazoizko portzentajea baino txikiagoa ere, kontuan harturik emakumeak sustatzeko planak eta estatistiketako datu historikoak, hautapen prozesuetara aurkeztu eta haiek gaintzen dituzten emakumeen portzentajearen gainekoak. Arau orokor gisa, emakumeak sustatzeko planak prestatzen ez diren bitartean, gutxienezko portzentajea ez da izanen % 30 baino txikiagoa, betiere 3 plaza baino gehiago deitzen badira.

5. Aurreko apartatuan aipatzen diren hautapen prozeduretan, deitutako lanpostu hutsak esleitzeko izangaien azkeneko zerrenda bakarra erabiliko da, lortutako puntuazioaren ordenari eta berdinketa kasuetarako dauden legezkotza irizpideei jarraikiz. Aurreko apartatuan aipatzen den portzentajearen helburura lortzen ez bada aurreko paragrafoan xedatuari jarraikiz, lehentasuna emanen zaie emakumezko izangaien gizonetako izangaien aurrean, bilatzen den helburua lortu arte, honako hau gertatzen bada:

a) Gaitasun-parekotasuna egotea, hautapen-sistemako oposizioaldiko probak eta ariketak gainditzeak ezarritakoa.

b) Lehentasun horren bidez hautatutako emakumezko izangaietatik inork ez izatea oposizioaldiko eta, kasua bada, lehiaketaldiko puntuazioan, hautapen-sistemaren arabera, ehuneko hamabostetik gorako alderik, atzean geratuko liratekeen gizonezko izangaien aurrean.

c) Beste izangaiarengan ez egotea legez aurreikusitako arrazoirik, sexu bereizkeriarik sortu ez eta neurria ez aplikatzea justifikatzen duenik, esate baterako, enplegua iristeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektiboetan egotea.

6. Aurreko apartatuak aipatzen duen lehentasuna bakarrik aplikatuko da hautapen prozesuko deialdiak aipatzen diren kidego, eskala eta kategorian emakumezko funtzionarioak % 35 edo gehiago ez diren bitartean”.

Zioak: Alor honetan aplikagarri den araudiak adierazten du beharrezkoa dela administrazio publikoetan berdintasun planak prestatzea; hori dela eta, komenigarritzat jotzen da plan horietan edo berariaz taxututako beste batzuetan aintzat hartzea Nafarroako polizia desberdinen egoera. Beraz, Foru Legean emakumeen aldeko diskriminazio edo ekintza positiboko neurriak sartu behar dira Nafarroako Polizietan sartzeko eta gora egiteko, betiere Europako legedia eta jurisprudentziako parametro eta baldintzen barruan. Emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak txanda irekiko hautapen-prozeduretan, zeinen arabera gizonezkoen aldean lehentasuna emanen bailitzaieke emakume hautagaien inguruabar jakin batzuetan, Europako jurisprudentzian lege-aurreikuspenari, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari dagokienez exigitzen diren parametroekin bat planteatzen dira. Kasu honetan, araua lege formaleko maila duen arau batean aurreikusten da. Arrazoizkoa da, bere norainokoa txanda irekiko sarbidera mugatzen duelako, eta historian zehar eman den diskriminazio faktiko bat arintzea du xede, eta arrazoizkoa da emakumeen masa kritiko baten exigentziengatik, polizia zerbitzua eraginkortasunez eman dadin. Eta proportzionala da, lehentasuna modu subsidiario eta murriztu batez aplikatzen delako, halako moduan non beti bermatzen baita gaitasun-parekotasun bat lehentasuna aplikatzean hautatutako emakume hautagaiaren eta baztertutako gizonezko hautagaiaren artean. Eta, gainera, salbuespenezko neurri bat da behin-behinekoa izateagatik; izan ere, ez da gehiago aplikatuko emakumeen presentzia % 35ekoa izatera heltzen denean kasuko kidegoan, eskalan eta kategorian.

72. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen gehigarriari bigarren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Komunitateko Toki Administrazioa: 6 hilabeteko epean, erregelamendu-arauak, Errege Dekretuak, indarra hartzen duenetik, zeinaren bidez ezarriko baita tokiko polizien kolektiboaren aldeko erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea, behin Gobernu zentralak onetsita, 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legean aurreikusitakoari jarraikiz, honakotan:

– Ehun eta hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. “Especialitateak, Toki Administrazioen zerbitzuko tokiko polizien kidegoetako kideen erretiro aurreratua inguruko kotizazioaren arloan”.

– Ehun eta hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. “Tokiko poliziaren ordezkatzetasa gehigarria”

Bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu koefiziente murriztaile horien onuradun gerta litezkeen tokiko polizietako langileen erretiro-adina aurreratzearen eraginkortasuna aurrekontuan gaitzeko”.

Zioak: Geldiune eta atzerapen asko egonda ere, denboran askoz gertuago ikusten da tokiko polizien kidegoaren erretiro aurreratua foruzainen kidegoarena baino.

Nafarroako tokiko polizia sartu egin behar da xedapen horretan.

73. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Seigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Seigarren xedapen gehigarria. Foruzaingoko langileen soldata-baldintzak mantentzea eta berreskuratzea.

Baldin eta foru lege honen aplikazioaren ondorioz foruzainen baten ordainsariak txikiagoak badi-ra, bermatuta egonen da gutxienez ere egungo ordainsariak mantenduko direla. Alde negatiboa zuzenduko da dagokion portzentajea gehituz lanpostuko osagarrian. Egungo ordainsariak ez gutxitzeko berme horretan ez langilerik, ez brigadarik ez da baztertzen.

Halaber, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen aplikazioaren ondorioz ordainsarrietan galerak izan dituzten Foruzaingoko unitateek gutxienez ere ordainsari horiek berreskuratuko dituzte honako neurri hauen bidez: soldata-masaren gehikuntza lanpostuko osagarrian, prestasun bereziko osagarriaren igoera eta burutzako osagarria, foru lege honen 59., 60. eta 61. artikuluetan, hurrenez hurren, arautuak.

Ordainsariak berreskuratzeari buruzko apartatu honetan sartuko dira ordainsarien gaineko neurri horiek jasan zituzten Foruzaingoko unitate guztietako langileak. Berezitasun bakarra izanen dira Agintariak Babesteko Brigadako langileak, foru lege honek indarra hartu aurretik ordainsaria murriztu bazaie 15/2015 Legearen aplikazioagatik. Langile horiek aldi baterako osagarri pertsonal bat jasoko dute galera hori ordaintzeko, aipatu unitatean dauden bitartean.

Ilido horretatik, foru lege honek indarra hartu ondoren Agintariak Babesteko Brigadari atxikitzen zaizkion langileei mantenduko zaie gaur egun aipatu unitatean aplikatzen den ordainketa-maila, kalkulu horretarako kontuan hartu gabe oinarritzko soldataren % 17aren konpentsazioagatik ordainsarien gehikuntza, proba fisikoak gainditzeri dagokiona.

Bi kasu horietan, kalkulu horretarako ez da kontuan hartuko oinarritzko soldataren % 17aren konpentsazioagatik ordainsarien gehikuntza, proba fisikoak gainditzeri dagokiona”.

Nolanahi ere, bermatzen da lege honen aplikazioaren ondorioz gerta daitezkeen igoeren inongo xurgatzerik ez dela gertatuko Foru Administrazioako langile guztientzat, oro har, etorkizunean oinarritzko soldatan ezartzen diren igoeren eraginez”.

Zioak: Agintariak Babesteko Brigadako langileak, Nafarroako askatasunaren alde hain zerbitzu ona eman dutenak, ez baztertzea.

74. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Nafarroako tokiko polizia-funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoa sartzeko.

Nafarroako tokiko polizia-funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoa sartzeko aukera izanen dute, jatorriko polizia-funtzionarioen kategorian edo enple-

gu berarekin, edo pareko kategorian edo enpleguan, Nafarroako Gobernuak Foru Parlamentura foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean igorriko duen erregelamendu batean zehazten diren baldintzetan, beti ere sartzeko hautaprobetan parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen badira.

Aipatu erregelamenduan honako alderdi hauek bilduko dira: Pertsona horiek Foruzaingoa sartzeko, edonola ere, boluntarioa izanen da beti, baina jatorri duen udal entitatearen baimena eduki beharko da. Gainera, sartzeko aukera horrek bakarrik ukituko ditu udal agente edo polizia-funtzionarioak foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean izaera hori dutenak. Sartze hori eskubide eta betebeharrak guztiekin egiten da; aldez aurretik beharrezkoak diren gaikuntzarako probak eta ikastaroak gainditu beharko dira Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Halaber, prozedura horretan ordezkaritza duten erakunde sindikalek hartuko dute parte.

Gainera, erregelamendua gehieneko adina ere ezarriko du udal polizia-funtzionarioak sartzeko eskatu ahal izateko”.

Zioak: Bai tokiko polizia-funtzionarioak ere sartzeko aukera izan dezakete. Hori legearen bidez arautu behar da, Parlamentuan adostu behar izan dezagun eta bakarrik eragin diezaie argitaratzeko egunean udal agente edo polizia-funtzionarioen izaera dutenei, Foruzaingora iristeko bide trankila izan ez dadin.

Iruñean, 2018ko urriaren 19an.

75. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako toki entitateetako polizia-funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoa sartzeko aukera izanen dute, jatorriko polizia-funtzionarioen kategorian edo enplegu berarekin, edo pareko kategorian edo enpleguan, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, beti ere sartzeko hautaprobetan parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen badira.

Pertsona horiek Foruzaingoa sartzeko, edonola ere, boluntarioa izanen da beti. Sartze hori eskubide eta betebeharrak guztiekin egiten da; aldez aurretik beharrezkoak diren gaikuntzarako probak eta ikastaroak gainditu beharko dira Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Halaber, proze-

dura horretan ordezkaritza duten erakunde sindikalek hartuko dute parte”.

Zioak: Tokiko poliziek eta tokiko poliziako zerbitzuetan diren udal agenteek ere eskubidea dute xedapen gehigarri honetan ezarritako aukera baliatzeko.

76. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, zortzigarrena izanen litzatekeena, gehitzeko zuzenketa:

Lanbide-karrerarako eskubidea aitortzen zaie Nafarroako Foruzaingoko kideei; lanbide-karrera erregelamendu bidez arautuko da, bai sustapenari eta karrera bertikaleko mapari, bai karrera horizontaleko mapari edo Foruzaingoko unitateetarako sarbideari dagokienez.

Tokiko polizien kasuan, kasuko toki administrazioak erregelamendu bidez arautzen ahalko du lanbide-karrera.

Zioak: Foruzaingoa lanbide-karreratik kanpo ez uztea eta aukera hori Nafarroako gainontzeko poliziei irekitzea.

77. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen iragankorra. Enpleguetan sartzeko deialdiak.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita enplegu bakoitzean sartzeko egiten diren deialdietan, lanposturik hutsik gelditzen bada, lanpostu horiek eskaintzen ahalko zaizkie oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, deitutako enplegutik beherako enpleguko langileei ez ezik bi enplegu beherakoei ere, betiere kasuko mailan sartzeko eskatzen den ikasketa titulua eta erreferentziako beheragoko enpleguan zazpi urte emanik badute egiazko zerbitzuan”.

Zioak: Maila apalagoko erreferentziatzeko enpleguetan egiaz emandako zerbitzuen baturan eskatutako antzinatasuna murrizteak erraztu egingen du eskatutako titulazioa daukaten langileek gora egitea, lehiakideen kopuru potentzial gehiagoren artean berengaitasuna frogatuz gero.

78. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen iragankorra. Enpleguetan sartzeko deialdia.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita enplegu bakoitzean sartzeko egiten diren deialdietan, lanposturik hutsik gelditzen bada, lanpostu horiek eskaintzen ahalko zaizkie oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, enplegu beretik beherako enpleguko langileei ez ezik bi enplegu beherakoei ere, betiere kasuko mailan sartzeko eskatzen den ikasketa titulua eta erreferentziako beheragoko enpleguan zazpi urte emanik badute egiazko zerbitzuan”.

Zioak: Gure ustez, denbora-tarte hori egokia da barne igoera errazteko, 50. artikuluan ezarritakoarekin lotuz, Administrazioako beste lanpostu batzuetara igotzeko. Eta kidego bereko enplegu guztietara hedatzen da.

79. ZUZENKETA

GEROA BAI ETA EH BILDU-NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra testu honen bidez aldatzeko zuzenketa:

“Hurrengo bi deialdietan (...)” (xedapenaren gainontzeko testuak berdin jarraitzen du)

Zioak: Ekiditea xedapen iragankor batek irau-pen mugagabea izatea, bi enpleguko jauziko barne igoera salbuespena izan dadin nahi delako.

80. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Proba fisikoak egiteagatik konpentsazioaren gaineko aukeraren izaera boluntarioari eusten zaio –konpentsazioa ekonomikoa ala orduena izan–, eta aukera hori libreki aldatu ahalko du foruzain bakoitzak lau urtez behin.

Proba fisikoen konpentsazio ekonomikoa aukeratzen duten langile funtzionarioei ordainsari ekonomikoa emanen zaie, mailari dagokion hasie-

rako soldataren % 17ko osagarri bat alegia, lanpostuko osagarriari gehituko zaiona.

Nolanahi ere, bi baldintza ezartzen dira gai hau erregulatzeke:

– Foruzain izaera foru lege honek indarra hartu ondoren eskuratzen dutenei automatikoki aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa, eta aukera izanen dute hori mantentzeko edo, gainontzeko plantillak bezala, orduen konpentsaziora aldatzeko lau urtean behin.. Salbuespenez, foru lege hau indarrean sartzen denean Segurtasun Eskolan dauden eta foru legea indarrean sartu ondoren foruzain izendapena lortzen dutenei ez zaie baldintza hori aplikatuko.

– Orduen konpentsazioa aukeratzen dutenak ezin izanen dira lanaldia 1/12 murrizteko aukeraz baliatu.

Eginen diren proba fisikoak orain arte finkatutako berak izanen dira, eta baldintza eta eduki berei eutsiko zaie, eta erregelamenduz arautuko dira”.

Zioak: Xedapen horrek polizien arteko konparaziozko bidegabekeriak eraginen lituzke. Ezin da foruzainik egon beste batzuek baino eskubide edo aukera gehiago daukanik, poliziako funtzionario izaera noiz lortu den.

Gainera, nekez esplikatu daiteke konpentsazio ekonomikoa ematea proba fisikoak ez egitea aukeratzen dutenei, lau urteko epean orduen konpentsaziora itzultzeko aukerari behin betikoz uko eginez horrela. Ustez, proba fisikoak gainditzegatik konpentsazioak balio bat dauka per se –egoera fisikoa behar bezala mantentzen dela kreditatzea, alegia, funtsezkoa dena polizia-lana behar bezala egiteko—. Konpentsazio ekonomiko hori probak gainditu izana kreditatu gabe jasotzea nekez justifika daitekeen opari bat da.

81. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Hirugarren paragrafoko lehendabiziko baldintza kenduko da.

Zioak: Egun dauden polizien eta promozio berrietakoen arteko diskriminazioa –lanorduetan nahiz ordainsarrietan– ekiditeko.

82. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorretan hirugarrena kentzeko zuzenketa. Proba fisikoak.

Proba fisikoak egin behar ez izatea –xedapenaren azken paragrafoan aurreikusten baita– kentzea proposatzen da:

“Eginen diren proba fisikoak orain arte finkatutako berak izanen dira, eta baldintza eta eduki berei eutsiko zaie, eta erregelamenduz arautuko dira”.

Zioak: Egoera fisiko egokia mantentzea balio bat da polizia-eginkizunak betetzeko, eta, hortaz, proposatzaileek ematen diotena baino garrantzi handiagoa eman behar zaio; proba fisikoak urtero gainditu beharrak indarraldi eta zentzu osoa dauka egoera fisikoa mantentzen dela ziurtatzeko eta, are, Foruzaingoko kideen egoerari buruzko informazioa lortu eta baloratu ahal izan dezan administrazioak. Ez dauka inolako zentzurik egoera fisiko hori frogatu behar izatea kentzea, eta termometro hori desagertzeak administrazioarentzat ere ez dauka inolako baliorik, jada adierazi dugun legez. Eta horregatik proposatzen dugu aukera hori kentzea.

83. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorren gehiketa egiteko zuzenketa. Proba fisikoak.

Xedapenari beste paragrafo bat gehituko zaio:

“Proba fisikoen orduen konpentsazioa aukeratzen duten langile funtzionarioei 142 orduko konpentsazioa emanen zaie”.

Zioak: Konpentsazio ekonomikoa areagotzean desoreka bat gertatzen da konpentsazio ekonomiko baliatzen dutenen eta orduen konpentsazioa baliatzen dutenen artean. Egoera hobea dute konpentsazio ekonomikoa baliatzen dutenek. Proposamen honen bidez nahi dena da bi konpentsazio horiek orekatzea, halako moduan non funtzionarioaren aukerak soilik erantzunen baitie bere lehentasun pertsonalei, ezen ez ekonomikoki konpentsatzen dutenentzako eskubide hobe bat egoteari. Egindako kalkuluen arabera, parekotasun

sun bat ezar liteke lanpostuko osagarriaren % 17aren eta proposatutako 142 orduen artean.

84. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bere polizia daukaten toki entitateek lanpostuen balorazioari buruzko kasuko azterlanak eginen dituzte Foru Lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean gehienez ere, lanpostuko osagarriari dagokion ehunekoa ezartzeko eta zehazteko.

Baldin eta langileen ordezkariekin ez bada adosten lanpostuko osagarriaren barruan sartzea txandakako laneko osagarria, egungo txandakako laneko osagarriari dagokion % 6ren ordainsaria jasotzeko eskubidea mantenduko da”.

Zioak: Lanpostuen balorazioari buruzko azterlanak nahitaez egin beharra ezarri beharra dago Nafarroako polizia guztietan, baita toki entitateetako polizietan ere, bai eta horretarako epea ere, kasuko lanpostuko osagarria kalkulatzeko aurretiazko urrats gisa. Batik bat lege proposamen honetako tituluetako bat “Nafarroako polizien estatutua” delako, eta bere edukian Nafarroako polizien –ez soilik Foruzaingoaren– ordainsariak jasotzen dituelako.

Bestalde, deigarria da lanpostuko osagarriaren barruan txandakako laneko osagarria sartzea ez arautzea, negoziazio sindikalaren mende utzita. Hori ez dator bat 59. artikuluan ezarritakoarekin. Horrek ere argi uzten du foruzaintzako lege baten aitzinean gaudela batez ere.

85. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Seigarren xedapen iragankorra. Polizia laguntzaileak.

Foru lege hau indarrean sartu eta bi urtetik aitzina, laguntzaileek ez dute polizia-plantilla osoaren %15 baino gehiago egin ezein toki entitate-tan”.

Zioak: Polizia-lanbidea betetzea ez dagokien administrazio-kontratudunei, ezpada langile fun-

tzionarioei. Legeria indardunak ezartzen duen lege, administrazio publikoen ardura da, segurtasun indarren eta kidegoen bidez, segurtasun publikoa mantentzea.

Bestalde, argi dago toki entitate askok figura hori baliatu eta neurrigabe baliatu dutela, halako moduan non polizia low-cost bat lortu duten praktikan, kalitatezko enplegu publikoa sortzearen aldeko apusturik egiten ez zuten bitartean.

Halere, “Nafarroako poliziei buruzko legea aldatzeko proiektuan kontuan hartu beharreko tokiko polizien beharrianak” izeneko txostenak erakutsi zuen figura horri buruzko iritziz ezberdinak daudela; hortaz, ez da kentzea proposatzen, baina bai mugatzea.

86. ZUZENKETA

PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa. Dagoenaren ordezkari ondoko testua proposatzen da:

“Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emanen ditu Gobernuak eta tokiko polizia edo toki poliziako zerbitzuak dauzkaten Nafarroako toki entitateek; zehazki, Nafarroako polizietako langileen prestakuntzari, lanpostuak betetzeari, plantillaren antolamenduari, bigarren jarduerari, lanaldiei, ordutegiei eta ordainsariei buruzkoak”.

Zioak: Ustez, Nafarroako poliziei buruzko foru legea da hau, eta ez soilik Foruzaingoari buruzkoa. Foru lege honen xedea Nafarroako tokiko polizien araubidea eraentzea denez, bai eta tokiko polizia zerbitzuen araubide berariazkoa eraentzea ere, beharrezkoa da erregelamendu bidezko garapena Foruzaingoari ez mugatzea.

87. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, dagokion zenbakia darabana, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapena. Titulazioak egokitzea

Foru lege hau indarrean sartu eta hiru hilabete epean eginen da enpleguetarako exigitzen

diren titulazioen egokitzapena, bai Estatuko gainontzeko lurraldeetan jada indarrean diren eta Bolonia Planeko ikasketetara egokitutako kategorietan sartzeko, bai horietara igotzeko”.

Zioak: Ez da bidezkoa jada zaharkiturik gelditu diren eta 2015etik ematen ez diren kategoriak mantentzea.

88. ZUZENKETA

Geroa eta Bildu

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

I. apartatuan azken paragrafo bat sartzea gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Ekintza positiboko neurriak ezartzen dira, polizia kidegoetan emakumeak sartzeko laguntzeko eta, hartara, egun duten presentzia eskasa zuzentzeko. Horrela, bada, emakumeak polizia kidegoetan sustatzeko planak arautzen dira, sarbidean eta lanbide-karreraren aukera berdintasuna bermatzeko, emakumeak azpiordezkatuta egotea zuzentzeko eta poliziaren eraginkortasuna areagotzeko.

Nabarmentzekoak dira, berriak izateagatik, emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak txanda irekiko hautapen-prozeduretan, zeinen araberak gizonezkoen aldean lehentasuna emanen bailitzaieke emakume hautagaiei inguruabar jakin

batzuetan, Europako jurisprudentzian lege-aurreikuspenari, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari dagokienez exigitzen diren parametroekin bat.

Kasu honetan, araua lege formaleko maila duen arau batean aurreikusten da. Arrazoizkoa da, bere norainokoa txanda irekiko sarbidera mugatzen duelako, eta historian zehar eman den diskriminazio faktiko bat arintzea du xede, eta arrazoizkoa da emakumeen masa kritiko baten exigitziengatik, polizia zerbitzua eraginkortasunez eman dadin. Eta proportzionala da, lehentasuna modu subsidiario eta murriztu batez aplikatzen delako, halako moduan non beti bermatzen baita gaitasun-parekotasun bat lehentasuna aplikatzean hautatutako emakume hautagaiaren eta baztertutako gizonezko hautagaiaren artean. Eta, gainera, salbuespenezko neurri bat da behin-behinekoa izateagatik; izan ere, ez da gehiago aplikatuko emakumeen presentzia % 35ekoa izatera heltzen denean kasuko kidegoan, eskalan eta kategorian. Gisa horretako neurrien helburua ez da sexuen arteko parekidetasuna, baizik eta emakumeen presentziako masa kritiko batera iristea (%35)”.

Zioak: Zioen azalpenean islatzea polizia kidegoetan emakumeak sartzeko laguntzeko eta, hartara, egun duten presentzia eskasa zuzentzeko neurri positiboak ezartzera bideratutako zuzenketak.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso- bakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitatean familia guraso-
bakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege pro-
posamenari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko
azaroaren 14ko eguerdiko hamabiak arte** luza-
tzea. Aipatu foru lege proposamena 2018ko ekai-

naren 15eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldiz-
kari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa noizko aurreikusten den 19/2018 Foru Legean toki administrazioaren atalean sartutako obrak baimentzea.*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa noizko aurreikusten den 19/2018 Foru Legean toki administrazioaren atalean sartutako obrak baimentzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko,

Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Urriaren 10eko 19/2018 Foru Legeak Inbertsio finantzarioki jasangarriei buruzko Plana onetsi zuen (guztira, 113 milioi). 113 milioi horietatik, 25,6 Nafarroako toki entitateetara bideratuta daude, 2017tik 2019ra bitarteko Toki Inbertsioen Planean erreserban geratu ziren obretarako.

Udalek berahala ekin zioten Nafarroako Gobernuak lege horretan sartu zituen obren proiektuak lizitatzeari. Proiekturik gehienak esleiturik eta eginik daude.

Zure departamentuak obra horietarako baime-na noiz emanen duen zain daude udalak, lanak lizitaziora atera aitzin, aurtengo abenduaren 31 baino lehen esleitzeko (legea betetzeko, ezinbestekoa da hori horrela izatea).

Noiz baimendu asmo duzue 19/2018 Foru Legean Toki Administrazioaren atalean sartuta dauden obrak, Nafarroako toki entitate askori eragiten dietenak?

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Club Atlético Osasunak egun emanik dauzkan banku-kredituen parte bat abalatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasunak egun emanik dauzkan banku-kredituen parte bat abalatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak ahoz erantzun dezan 2018ko azaroaren 8ko Osoko Bilkuran:

C.A. Osasunak zer proposamen zehatz egin dio Nafarroako Gobernuari, klubak bere zorrei aurre egiteko egun emanik dauzkan banku-kredituen parte bat abalatzeko aldera? Gobernuak nola baloratzen du proposamen hori, eta zer jarduketa egin asmo du horri dagokionez?

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, Skolae programa Nafarroako ikastetxeetan derrigorrez ezartzeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Skolae programa Nafarroako ikastetxeetan derrigorrez ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da zure jarrera Skolae programa Nafarroako ikastetxeetan derrigorrez ezartzeari buruz?

Iruñean, 2018ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Skolae deitutako hezkidetza-programan Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako erabilitako fitxetako bati buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Skolae deitutako hezkidetza-programan Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako erabilitako fitxetako bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak Skolae deitutako hezkidetza-programan Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako erabilitako fitxetako batean zergatik esaten da honako hau lidergo, ahalduz eta parte-hartze sozialaren ardatzean, ikasleek gizarte berdintasunezkoago baten alde kolektibo edo antolakunde feministaren batek egindako lana ezagut dezaten: “Ingurune hurbil batekoa izan beharko du (Espainiako estatura joan behar izan gabe)”?

Corellan, 2018ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Trafiko eta Bide Segurtasunaren eskumena transferitzearen inguruan Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu zentralaren artean izandako akordioari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Trafiko eta Bide Segurtasunaren eskumena transferitzearen inguruan Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu zentralaren artean izandako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den azaroaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta Gobernu zentralak trafikoko eta bide-segurtasuneko eskumenaren transferentziari dagokionez oraintsu jakinarazitako akordioari dagokionez:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du akordio horri buruz, eta zeintzuk dira akordio horren nondik norakoak?

Iruñean, 2018ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, ludopatiaren sintomekin joaten direnei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkezten zaien jarduketa protokoloari eta ibilbideari eta osasun publikoaren arloan dauden baliabideei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ludopatiaren sintomekin joaten direnei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkezten zaien jarduketa protokoloari eta ibilbideari eta osasun publikoaren arloan dauden baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari

Fernando Domínguez Cunchillos jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 30ean lan-bilkura bat egin genuen "Aralar"-Nafarroako Ludopaten Elkartearen ordezkariekin. Zenbait zori-joko eta apusturekiko mendekotasunari, hartu beharreko prebentzio-neurriei eta esparru hori arautzeko premiari buruzko beste auzi askoren artean, planteatu zuten kaltetuek eta haien familiek zer-nolako zailtasunak dauzkaten Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Osasun Mentalaren arloetako artan.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez Cunchillos jaunari:

Zein da ludopatiaren sintomekin joaten diren pertsonen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkezten zaien jarduketa-protokoloa eta ibilbidea, eta zer baliabide dauzkate eskueran pertsona horiek osasun publikoaren esparruan?

Iruñean, 2018ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko ea Espainiako Gobernuak errespetatuko ote duen inbertsio finantzarioki jasangarriei buruz Parlamentu honek onetsitako 19/2018 Foru Legearen eduki osoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea Espainiako Gobernuak errespetatuko ote duen inbertsio finantzarioki jasangarriei buruz Parlamentu honek onetsitako 19/2018 Foru Legearen eduki osoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeko.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Adolfo Araiz Flamarique jaunak Gobernuko lehendakariari zuzendutako gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztzen dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2018ko azaroaren 8an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Iragan urriaren 31n, Espainiako Gobernuko lehendakariak lan-bilera bat egin zuen Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin, autonomia erkidegoetako lehendakarietako bere bilera-txandan, eta gure erkidegoarentzat interesekoak diren zenbait gai jorratu zituzten bertan.

Besteak beste, bi gobernuen ohar ofizialetan aipatu den bezala, 19/2018 Foru Legean jasotzen diren inbertsio finantzarioki jasangarrien gaia jorratu zuten (guztira, 113 milioi euro dira).

Moncloako Jauregiko prentsa-kabineteak banatutako ohar ofizialean honako hau esaten da:

“Lehendakariak orobat baieztatu zion Ogasun Ministerioak Foru Komunitatearen eskaria aztertu-

ko duela, 2017ko bere superabitaren zati bat inbertsio finantzarioki jasangarrietara bideratu ahal izatekoa, baldin eta beren eskaria birformulatzen badute, hasieran eskatutako zenbatekoa murriztuz, defizit-egoera batera eraman lezaketen arriskuak ekiditeko eta, betiere, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako baldintzak betetzen badira”.

Nafarroako Gobernuaren prentsa-kabineteak banatutakoan, berriz, honako hau esaten da:

“Azkenik, Nafarroako lehendakaria ‘pozik’ agertu da Pedro Sánchezekin izandako bilera ikusita eta transferentzien eta Hitzarmen Ekonomikoren lege-eguneratzearen inguruan lortutako akordioak direla-eta, eta lortu ahal izanen dugun hirugarren akordio bat ere aipatu du, talde teknikoek lanean jarraitzen dutelako”: Nafarroako Parlamentuak foru lege baten bidez oraintsu onetsitako 113 milioiko inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko negoziazioa. Barkosek azaldu du Sánchez lehendakariari adierazi diola Nafarroak “berealdiko anbizioa izanen duela” Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 2012ko Legearen irakurketa ez-murriztaile bat eginez, Nafarroak planteatzen duen exekuzio globalera iritsi ahal izateko, bere aurrekontu-superabitarekin finantzatuta”.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Espainiako Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezekin izandako bileraren ostean, gobernu horrek errespetatuko al du, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren ustez, inbertsio finantzarioki jasangarriei buruz Parlamentu honek onetsitako 19/2018 Foru Legearen eduki osoa?

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariarekin izandako bilerari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariarekin izandako bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek 2018ko azaroaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du Espainiako Gobernuko lehendakariarekin izandako bileraz?

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroako familiek PFEZaren dirua atzeraeraginez berreskura dezaten babesteari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako familiek PFEZaren dirua atzeraeraginez berreskura dezaten babesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

PFEZaren itzulketa eskatzen duten amak beren eskaria Nafarroako Parlamentura ekartzera bultzatu eta gero:

Zuk zeure botoarekin babestuko al duzu Nafarroako familiek PFEZaren dirua atzeraeraginez berreskura dezaten, Auzitegi Gorenaren epaiari jarraikiz?

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko aurki egitekoa den oposizio-lehiaketari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, maisu-maistren kidegoan sartzeko aurki egitekoa den oposizio-lehiaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero
andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau

aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak heldu
den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan onetsita daude 2015etik 2018rako
berrezarpen eta egonkortze tasei dagozkien
irakaskuntzako lan eskaintza publikoaren deial-
diak.

1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsi zen
maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen-pro-
zedura, 2015eko lan eskaintza publikoari dagoz-
kion 73 lanpostu betetzekoa.

Aurreikusita dago maisu-maistren kidegoan
sartzeko oposizio-lehiaketa 2019ko maiatzetik ai-
tzina egitea Nafarroan.

Nafarroan maisu-maistren kidegoan sartzeko
aurki egitekoa den oposizio-lehiaketari dagokio-
nez, Hezkuntza Departamentuak zer egutegi
darabil gogoan deialdian sartuko diren lanpostuak
iragartzeko, espezialitate eta hizkuntzaka, kasuko
deialdia argitaratzeko eta hautaprobak egiteko?

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, turismo-gidarien sektorea arautzeari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko
azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu
zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez
jaunak aurkezturiko galdera, turismo-gidarien sek-
torea arautzeari buruzkoa, Garapen Ekonomikora-
ko Batzordean izapidetu dadin. Galdera 2018ko

irailaren 11ko 107. Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa.

KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa, Kultura, Kirol eta Gazteria Ba-

tzordean izapidetu dadin. Galdera 2018ko irailaren 25eko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzekoa.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, 2018ko urriaren 15ean, honako ebazpen hau eman zuen:

Erakunde honen plantilla organikoan aurreikusirik dago Ganberaren zerbitzuko auditore lanpostu bat, eta, lanpostu hori betetzeari dagokionez, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiak proposamen-txostena eman du, eta Ganberako langileen batzordeari horien berri eman zaio. Erakundearen Zerbitzu Juridikoek, kontu-hartzailetzakoek eta administratzaileak aldeko txostenak eman dituzte. Horiek horrela, proposamen-txostena ikusirik,

EBATZI DUT:

Lehenbizikoa.- Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskineko oinarriekin bat etorriko da.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 15ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako oinarriak

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu

huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzea.

1.2. Honako hauetan xedatutakoarekin bat gauzatuko da oposizio-lehiaketa: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua edo, bestela, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testuategia onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hori garatzeko eta beteazteko sarrera erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren ondorioz izendatutako pertsonak bete beharko ditu Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditore lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak, eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko Foru Legearen 16. artikuluan ezarritakoak izanen dira haren eginkizunak. Hona hemen eginkizun horietako batzuk: Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kontuak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa kontrolatzea, Ganberako lehendakariari fiskalizazio txostenak proposatzea, baita fiskalizazio eginkizunetan arituz lortzen dituen emaitzak ere, eta, horiez gain, Kontuen Ganberako lehendakariak agintzen ahal dion beste zeinahi eginkizun.

1.4. Lanpostua lanpostuen egungo sailkapenaren A mailan sartzen da, eta horri dagozkion ordainsariak izanen ditu, baita Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak ere.

1.5. Izendatzen den pertsona Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartu eta afiliatuko da, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta hori osatzen duten xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboen eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kidea bada, kasu horretan

aukera izanen baitu araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaren afiliatzeko.

1.6. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokitu da, eta Kontuen Ganberako lehendakariak noiznahi aldatzen ahal du.

2. oinarria.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 19ko 19/1984 Foru Legearen 28. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori barne igoera murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez beteko da. Horretan parte hartzen ahalko dute Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioek, jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian badaude, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izatea, deialdiko lanpostu hutsaren maila berekoa edo beheragokoa batekoa.

b) Titulu hauetako bat izatea: Merkataritzako irakaslea edo Zuzenbideko, Ekonomia Zientzietako, Enpresa Zientzietako edo Enpresen Administrazio lizentziaduna edo graduduna, edo baliokideak.

c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

d) Administrazio publikoetan bost urteko antzintasun aitortua frogatzea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete behar direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozesuak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria.- Eskaerak.

3.1. Oposizioan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa.

3.2. Eskaeran deialdi honen 2. oinarrian aipatzen diren baldintza guztiak betetzen direla espresuki agerrarazi beharko da, eta horiek frogatu beharko dira deialdiaren 7. oinarrian ezarrita dagoen moduan. Eskaerarekin batera, alegatuta-

ko merezimenduen zerrenda ordenatua aurkeztu behar da, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuta, bai eta haien frogagiriak ere, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Kontuen Ganberaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira (Iruñeko Ansoleaga kalea 10), egun eta ordu baliadunetan (goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarte, astelehenetik ostiralera), hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako bideetako bat erabiliz.

Eskaera posta bulego batean aurkeztu bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek eskaerari data eta zigilua jarri diezazkionten, ziurtatu eta Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrera igorri baino lehen.

Eskabideak Kontuen Ganberaren Erregistro Orokor Elektronikoan ere aurkeztu ahalko dira haren egoitza elektronikoen bidez.

3.4. Desgaitasun aitortua dutenek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskatzea; horretarako, eskaeran adierazi beharko dute eta aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legean arabera desgaitasunen bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.5. Eskabide eredua interesdunen eskura egonen da Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web-orrian ere.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da. Onartutakoen eta baztertutakoen izen-deiturak agertuko dira zerrenda horretan.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari

Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da.

5. oinarria.- Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen oposizio-lehiaketako epaimahaiko kideak:

Burua:

– Isabel Brusca Alijarde, Zaragozako Unibertsitateko Kontabilitatearen eta Finantzen Departamentuko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen katedraduna.

Ordezkoa: Vicente Condor López, Zaragozako Unibertsitateko Kontabilitatearen eta Finantzen Departamentuko Ekonomia Finantzarioaren eta Kontabilitatearen katedraduna.

Kideak:

– Javier Aurrecoechea Gutierrez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Kontabilitate Ataleko burua.

Ordezkoa: Elena Garde Macías, Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Kontu-hartzailetza Zerbitzuko zuzendaria.

– M.^a Eugenia Zugaza Salazar, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko auditorea.

Ordezkoa: Miguel Ángel Astiz López de Letona, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko auditorea.

– Isabel Linares Muñagorri, Aragoiko Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Ignacio Barquero Solanes, Aragoiko Kontuen Ganberako auditorea.

Idazkaria:

– Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, erakundearen langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria, erakundearen langileen batzordearen ordezkari.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aitzin osatu beharko da. Ez du eratzetik izanen, ez eta ari-terik ere, bertan mahaikide gehienak ez badira.

5.3. Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoei bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoz ebartziko ditu.

5.5. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Hala ere, deialdian parte hartzen dutenek mahaikideak errekusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko, eta epaimahaiari haietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria.- Oposizio-lehiaketaren nondik norakoa.

6.1. Oposizio-lehiaketak bi fase izanen ditu, lehiaketaldia lehenbizi eta oposizioaldia ondoren.

6.2. Lehiaketaldia.

6.2.1. Lehiaketaldian 30 puntu eskuratzen ahaliko dira gehienez. Fase hori 2019ko martxoaren 31 baino lehen ebatziko da eta ez da izanen izangaia baztertzekoa. Alegatu eta egiaztatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean ageri den baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Honela banatuko dira puntuak:

a) Merezimendu akademikoak, gehienez ere 5 puntu.

b) Auditoretzan esperientzia izatea, gehienez ere 15 puntu.

c) Lanbide esperientzia izatea aurreko atalean baloratu gabeko arlo ekonomiko-finantzarioetan, gehienez ere 6 puntu.

d) Auditore gisa bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste merezimendu batzuk, hala nola, hizkuntzak jakitea, mintegi eta biltzarretan aurkeztutako txosten eta komunikazioak, aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikulak, prestakuntza ikastaro espezializatuetan parte hartu izana, eta abar: gehienez ere 4 puntu.

6.2.2. Alegatutako merezimendu guztiak agiri bidez frogatu beharko dira, izangaiek oposi-

zio-lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu duten unean.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpen eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu epaimahaiak.

6.2.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartuko alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emango merezimenduen atal bakoitzean.

6.2.4. Lehiaketaldiko merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du izangaiek lortutako puntuazioa, Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian, eta hamar egun naturaleko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

6.2.5. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta epaimahaiak horiek ebatzi ondoren, Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko da izangaiek lehiaketaldian lortutako behin betiko puntuazioen zerrenda. Gero oposizioaldian lortzen direnei gehituko zaizkie, horrela oposizio-lehiaketan izandako puntuazio osoa aterako baita.

6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Oposizioaldia 2019ko ekainaren 1etik aurrera hasiko da. Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratuko dira lekua, eguna eta ordua, izangaiek lehiaketaldian lortutako puntuazioekin batera.

6.3.2. Oposizioaldian bi ariketa egingen dira, bata praktikoa eta bestea teorikoa, eta bakoitzaren barnean bi proba egingen dira. Guztira 70 puntu eskuratzen ahalko dira.

6.3.3. Oposizioaldiko ariketa praktikoa egingen da lehendabizi. Gehienez ere 36 puntuko balorazioa izanen da, eta bi proba egin beharko dira:

a) Lehendabiziko proba praktikoa. Bertan, gehienez lau orduz, kontabilitate publiko edo/eta pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dira, epaimahaiak jarriko dituenak. Proba honetan 18 puntu lortzen ahalko dira gehienez ere, eta gutxienez 9 puntu atera beharko dira proba gainditzeko. Honako hauei buruzko gaiak ateratzen ahalko dira proba honetan: Kontabilitate Publiko eta Pribatuaren Plan Orokorra, Nafarroako toki kontabilitate esparrua, finantzen egoera-orrien azterketa, kontu-bateratzea, finantza eragiketak, estatistika eta kontabilitate analitikoa.

b) Bigarren proba praktikoa. Gehienez 4 orduz, auditoretza publiko edo/eta pribatuko txostena egin beharko da, epaimahaiak aurkeztutako

kasuari edo kasuei buruz. Proba honetan 18 puntu lortzen ahalko dira gehienez ere, eta gutxienez 9 puntu atera beharko dira proba gainditzeko. III. eranskineko ("Deialdiko programa") bigarren, hirugarren eta laugarren multzoetako gaietako edozeini buruzkoa izan daiteke proba.

Ariketa praktikoko probak gutun-azal itxien sistemaren bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, proba bakoitza bukatzean, folioak gutun-azal handi batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak gutun-azal txiki batean idatziko dituzte, eta gutun-azal hori bestearrekin batera aurkeztuko da. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Probak bukatzean, bi gutun-azaletan epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie oposizioan parte hartzen dutenei.

6.3.4. Ariketa praktikoa amaiturik, ariketa teorikoa egingen da. Guztira 34 puntu lortzen ahalko dira eta oraingoan ere bi proba egingen dira:

a) Lehenengo proba teorikoa: gehienez 4 orduz, epaimahaiak egingen dituen hamabi galdera erantzun beharko dira idatziz, deialdi honen III. eranskinean dagoen gai-zerrendaren bigarren eta laugarren multzoetakoak. Proba horretan 18 puntu lortzen ahal dira gehienez; hau da, 1,5 puntu galdera bakoitzeko. Proba gainditzeko, gutxienez, gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da; hau da, 9 puntu, eta 12 galderetako 10etan puntuazioa eskuratu.

Lehenengo proba teorikoa amaituta, izangaiek idatzita dauden orriak emanen dizkiote epaimahaiari. Plika itxien sistemaren bidez zuzenduko da ariketa. Proba praktikoen kasuan ezarritako modu berean jokatu da.

b) Bigarren proba teorikoa: gehienez 4 orduz, zozketa bidez aukeratutako bi gai azaldu beharko dira; hots, deialdi honen III. eranskinean dagoen gai-zerrendaren lehenengo multzoko gai bat eta hirugarren multzoko beste bat. Proba honetan 16 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gai bakoitzean gutxienez 4 puntu ateratzen ez dituztenak baztertuko dira.

Bigarren proba teorikoa bukatu ondoren, izangaiek gutun-azal batean sartuko dituzte idatzitako orriak. Interesdunak eta epaimahaiak idazkariak sinatuko dute hegalean eta idazkariak gordeko du gutun-azala. Bidezko denean, eta alfabetozko

hurrenkerari jarraituz, izangaiak, epaimahaiaren aurrean, berak sinaturiko gutun-azalak ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Gero, epaimahaiak kalifikatuko du. Jendaurreko irakurketan edo horren ondoren, epaimahaiak izangaiarekin hitz egin ahal izanen du egindako ariketari buruz, hamar minutuz gehienez ere.

6.3.5. Kalifikatu ondoren, epaimahaiak jendaurrean paratuko du proba bakoitzaren emaitza, Kontuen Ganberaren web-orrian. Iragarki horretan, hurrengo proba non eta noiz egingen den adieraziko da, gutxienez 24 ordu lehenago, ariketa bereko proben kasuan, eta 48 ordu lehenago, berriz, ariketa desberdinen kasuan. Kalifikazio horiek lehiaketaldian izangaiak lortu dituzten kalifikazioei gehituko zaizkie, oposizio-lehiaketako puntuazio osoa lortu arte.

6.3.6. Proba bakoitzerako dei bakarra egingen da. Hartara nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat aldean dutela agertu beharko dute izangaiak. Azterketan azaltzen ez direnak edo haien nortasuna egiaztatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.3.7. Oposizioaldiko probak egiteko orduan, minusbaliotasunak izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

7. oinarria.- Probak gainditu dituztenen zerrenda, izendatzeko proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketa bukatu ondoren, oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak Nafarroako Kontuen Ganberako web-orrian, lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Azken emaitzan berdinketak izanez gero, lehiaketaldian puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde ebatziko da, eta, berdinketak irauten badu, Kontuen Ganberan denbora gehitu den izangaiaren alde.

7.2. Epaimahaiak puntu gehien lortu dituen izangaia izendatzeko proposamena igorriko dio Kontuen Ganberako lehendakariari, oposizio-lehiaketako akta eta gainerako agiriekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Proposaturiko izangaiak, proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen deneetik 30 egun natural igaro baino lehen, Kontuen Ganberak eskatzen dizkion agiriak aurkeztu beharko ditu, baita deialdiaren 2. oinarrian eska-

tzen den tituluaren fotokopia konpultsatua edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria ere, eskabidearekin batera aurkeztu ez badu. Izangaiak desgaitasunen bat alegatu badu, gainera, desgaitasuna lortutako lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko du, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.4. Aipatu epearen barrenean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkeztu ez dituztenak ez izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.5. Aurreko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak oposizioa gainditzeko dutenen zerrendan (7.1 atalak aipatzen duen hartan) ondotik heldu den pertsonarekin beteko du utzitako hutsunea, eta harekin ere aurreko ataletan adierazi bezala jokatuko da.

8. oinarria.- Behin-behineko izendapena.

8.1. Goiko 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, ebazpen baten bidez, proposaturiko pertsona behin-behinekoz izendatuko du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta web-orrian argitaratuko da.

8.2. Izendatzen den pertsonak hilabeteko epean jabetu beharko du lanpostuaz, izendapena jakinarazten zaionetik hasita.

8.3. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, deialdi honetako 7.3 oinarrian eskatzen diren agiriak aurkeztu ez baditu edo aipaturiko hilabeteko epean jabetza hartzen ez badu, izendatutako pertsonak oposizio-lehiaketako jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazitako zerrendan hurrengo dagoen pertsonarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria.- Praktikaldia

9.1. Proposaturik eta behin-behinekoz izendaturik dagoen pertsonak urtebeteko praktikaldia gainditu beharko du auditore izateko behin betiko izendapena lortu aurretik, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko Foru Legearen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat.

9.2. Praktikaldia hasiko da izendatutako izangaiak lanpostuaren jabetza behin-behinekoz hartzen duenean, hilabeteko epean egingen baita, izendapena jakinarazten den egunetik hasita.

9.3. Praktikaldian, izendatutako pertsonak Kontuen Ganberako auditoretzako teknikariei dagozkien eskubide eta eginbeharrak izanen ditu.

9.4. Kontuen Ganberako lehendakariak, bertako kideei entzun ondoren, izangaiak praktikaldian izaniko etekina baloratu eta hori bukatzean kalifikazioa emanen du, gai edo ez-gai, ebazpen arrazoitu baten bidez.

10. oinarria.- Behin betiko izendapena eta lanpostuaren jabetza hartzea.

10.1. Aurreko oinarrian aipatzen den praktikaldia bukatutik, izangaiak gai kalifikazioa lortuz gero, Kontuen Ganberako lehendakariak behin betikoz izendatuko du auditore. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuko da.

10.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, karguaz jabetu beharko du, behin betikoz, izendatutako pertsonak.

10.3. Ulertuko da izangai batek, epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, oposizio-lehiaketaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, deialdiko 7. oinarrian aipatzen den proposamenean hurrengo dagoen izangaiarekin beteko da lanpostua, praktikaldia egin ondoren.

10.4. Aurreko atalean adierazitako modu berean jokatu da behin-behineko izendatutako izangaiak aipatu praktikaldian gai kalifikazioa lortu ez badu.

11. oinarria.- Aurkeztutako agiriak

11.1. Izangaiak, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik paratzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte hala eskatu ondotik. Agiriak berreskuratzeko eskaera hiru hila-

beteko epean aurkeztu ahal da. Epe hori behin betiko izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hasiko da.

11.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaiak agiriak berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

12. oinarria.- Errekurtsiak.

Honako errekurtsio hauetako bat aurkeztu daiteke deialdiaren, haren oinarrien, izendatzeko erabakien eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka:

a) Aukerako berraztertzeko errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

**Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko
auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa
bidez eta txanda murriztuan betetzekoa**

Izen-deiturak: adina:
NANa: helbidea (herria):
kalea: zenbakia:
solairua: posta kodea: telefonoa:
helbide elektronikoa:; adeitasunez,

AZALTZEN DU:

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2018ko urriaren 15ean emandako ebazpenaren berri izan du; haren bidez dei egin da auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda murriztuan betetzeko. Hala, hartan parte hartu nahi du.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Adierazitakoaren ondorioz,

ESKATZEN DU:

Eskaera honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen dituen merezimenduen egiaztagirak aurkezteko.

Iruñean, 2018koaren(e)an

II. ERANSKINA**Merezimenduak baloratzeko baremoa**

a) Merezimendu akademikoak, gehienez ere 5 puntu.

Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

- Deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoak diren goi mailako ikasketetako doktoretza, bi puntu.

- Unibertsitateko beste titulu ofizial batzuk, auditore lanpostuan aritzeko alegatutakoaz gainera, baldin eta lotura badute auditore lanpostuaren eginkizunekin: puntu bat emanen da erdi mailako tituluengatik eta 2 puntu goi mailako tituluengatik.

- Auditoretzari buruzko unibertsitateko master ofizialak, bi puntu.

- Unibertsitateko beste master ofizial batzuk, auditore lanpostuaren eginkizunekin lotura badute, puntu bat.

- Unibertsitateko titulu berekiak edo aditu tituluak auditore lanpostuan bete beharreko eginkizunekin lotutako arloetan, puntu bat.

Ez dira meritutzat hartuko maila goragoko titulu akademikoak eskuratzeko ezinbestekoak direnak.

b) Auditoretzan esperientzia izatea, gehienez ere 15 puntu.

Atal honetan 0,80 puntu emanen dira auditoretza publikoan egindako urte oso bakoitzeko eta 0,60 puntu auditoretza pribatuan egindako urte oso bakoitzeko, esperientzia horrek ondoko baldintzak betetzen baditu: auditore lanpostuetan aritu izana, A mailan edo baliokideetan, deialdian eskatzen diren goi mailako tituluak baten bat beharrezkoa den lanpostuetan.

Halaber, 0,60 puntu emanen dira auditoretza publikoan egindako urte oso bakoitzeko eta 0,40 puntu auditoretza pribatuan egindako urte oso bakoitzeko, baldin eta lan hori auditoretzako teknikariaren lanpostuetan egin bada, B mailan edo baliokideetan, erdi mailako titulua beharrezkoa den lanpostuetan.

Aintzat hartuko da kanpo auditoretzako esperientzia, eta barne auditoretzako ere bai, baldin eta, azken kasu horretan, auditoretzako edo barne kontroleko lanak egin direla frogatzen bada. Bestela, esperientzia hori baremoaren c) atalean baloratuko da.

Entitate publiko batean lan egin bada, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko da hori frogatzeko.

Norberaren kontura lan egin bada, egindako lan denboraldiko lizentzia fiskala aurkeztuko da hori frogatzeko, egindako lanen frogagirikin batera.

Besteren kontura lan egin bada, esparru pribatuan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak lan bizitzari buruz emandako ziurtagiria aurkeztuko da, lan kontratuaren kopiarekin batera, eta egindako lanei buruz enpresak emandako ziurtagiria erantsiko da.

c) Lanbide esperientzia izatea aurreko atalean baloratu gabeko arlo ekonomiko-finantzarioetan, gehienez ere 6 puntu.

Atal honetan aintzat hartuko da kudeaketa ekonomiko-finantzarioekin zerikusia duten lanpostuetan aritu izana, hala sektore publikoan nola pribatuan. Goi mailako titulazioa beharrezkoa den lanpostuetan aritutakoek 0,40 puntu jasoko dituzte urteko, eta erdi mailako titulazioa beharrezkoa den lanpostuetan aritutakoek 0,30 puntu urteko.

Entitate publiko batean lan egin bada, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko da hori frogatzeko.

Norberaren kontura lan egin bada, egindako lan denboraldiko lizentzia fiskala aurkeztuko da hori frogatzeko, egindako lanen egiaztagirikin batera.

Besteren kontura lan egin bada, esparru pribatuan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorak lan bizitzari buruz emandako ziurtagiria aurkeztuko da, lan kontratuaren kopiarekin batera, eta egindako lanei buruz enpresak emandako ziurtagiria erantsiko da.

d) Auditore gisa bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten beste merezimendu batzuk, hala nola, Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, euskaraz jakitea, prestakuntza ikastaro espezializatuan parte hartu izana, artikulak, mintegi eta biltzarretan aurkeztutako txosten eta komunikazioak, eta abar: gehienez ere 4 puntu.

Atal honetan Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea honela baloratuko da: Hizkuntzen Europa-ko Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, 0,30 puntu jasoko dira; A2 maila izanez gero, 0,60 puntu; B1 izanez gero, 0,90 puntu; B2 izanez gero, 1,20 puntu; eta C1 edo baliokidea izanez gero, 1,50 puntu.

Halaber, atal honetan euskaraz jakitea honela baloratuko da: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, 0,40 puntu jasoko dira; A2 maila izanez gero, 0,80 puntu; B1 izanez gero, 1,20 puntu; B2 izanez

gero, 1,60 puntu; eta C1 edo baliokidea izanez gero, 2,10 puntu.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriren artean ezarritako baliozkotzeak. 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ebazpen hori, irailaren 27koan.

Puntu batekin baloratuko da Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean sartzeko prestakuntza ikastaro teorikoa, Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutuak homologatua, gainditu izana.

Atal honetan, halaber, ekintza bakoitzeko 0,30 puntu emanez baloratuko da mintegi eta biltzarretan txostenak edo hitzaldiak aurkeztu izana, bai eta aldizkari espezializatueta artikulua aurkeztu izana ere, auditore gisa egin beharreko lanekin zerikusia baldin badute. Auditore izateko lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko liburuak argitaratu izana gehienez 2 punturekin baloratuko da, eta lanpostu horretako eginkizunekin zerikusia duten argitalpenekin lortutako sari eta goraipamenengatik puntu bat emanen da gehienez.

Epaimahaiak atal honetan aintzat hartu ahal izanen du auditore lanpostuko eginkizunekin zerikusia duten lanbide espezializazioko ikastaroak egin izana azken hamar urteetan, 50 orduetik gora ikastaroak izan badira eta aprobetxamendu agiria lortu bada. 50 ikastorduko 0,20 puntu emanen dira.

Baremoko puntuak aplikatzeko oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da.

2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

3. Ez dira baloratuko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan egindako zerbitzuak edo eskuratutako merezimenduak.

4. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeari dago-kionez, egoera horietan sartzean zeukan lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira. Funtzionario behin betikoz izendatu baino lehen egindako praktikaldiak ere osorik baloratuko dira.

III. ERANSKINA Deialdiko programa

Lehen multzoko gaiak.
Ekonomia eta Ogasun Publikoa

1. gaia.- Ekonomia Publikoaren justifikazioa. Oreka orokorraren eredu teorikoa. Ekonomiako esku-hartze publikoaren oinarriak: Estatuaren eginkizun fiskalak: esleitzea, banatzea eta egonkortzea. Ogasun publikoaren gaineko teoria positiboa eta arau-emailea. Sektore publikoa: sarrerak eta gastuak. Ekonomia publikoa. Ogasun publikoaren gaineko teoriaren egungo gaiak.

2. gaia.- Sektore publikoaren tamaina: gastuak eta diru-sarrerak. Sektore publikoa, ekoizle eta kontsumitzaile gisa. Administrazio publikoak, errenta banatzaile gisa. Sektore publikoa Nafarroan.

3. gaia.- Ongizatearen ekonomiaren oinarriak. Eraginkortasun ekonomikoa kontsumoan eta ekoizpenean, eta eraginkortasun globala. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna lortzeko: merkatuaren akatsak. Ondasun publikoak. Esternalitateak. Lehentasunezko ondasunak. Esku-hartze publikoaren motak eraginkortasuna lortzeko. Ondasun pribatuaren hornidura publikoa.

4. gaia.- Ondasun publikoen definizioa. Ondasun publiko puruak eta ezpuruak. Ondasun publikoen hornidura eraginkorra: ondasun publikoen hornidura pribatuaren eraginkortasunik eza. Ondasun publikoen hornidura publikoa. Finantzabide-prozeduraren eraginak ondasun publikoen hornidura ezin hobearen gainean.

5. gaia.- Esternalizazioa. Kanpo-efektuen kontzeptua eta izaera. Esternalizazio motak: kanpo-ekonomiak eta desekonomiak. Soluzio pribatuak: kanpo-efektuak barneratzea merkatuan, jabetza eskubideak esleitzuz eta negoziatuz; fusioak; konbentzio sozialak. Soluzio publikoak. Esternalitate positiboak. Zuzentzeko prozeduren balorazioa. Eraginak eraginkortasunaren eta zuzentasunaren gainean.

6. gaia.- Hautapen soziala. Hautapen kolektiboaren problema. Hautapen kolektiboaren arauak. Demokrazia zuzena. Gehiengo bozketaren bidezko hautapena. Gehiengo bozketaren oreka. Demokrazia ordezkatzaila. Gizarte-ongizatearen eginkizunen bidezko hautapena.

7. gaia.- Sektore publikoaren funtzionamendu ereduak. Antolaketaren arazoa sektore publikoan. Sektore publikoaren akatsak. Kudeaketa publikoa eta efizientzia: antolaketa ereduak sektore publikoan. Instituzioen diseinuak. Instituzio publikoeta-

ko pizgarri sistema baten printzipioak. Pizgarrien mekanismoen balorazioa.

8. gaia.- Proiektu publikoen ebaluazio ekonomikoa. Kostuaren eta irabaziaren azterketa: kostuaren eta onuraren azterketaren oinarri ekonomikoak: efizientziaren irizpidea. Kostuaren eta onuraren azterketa praktikan: kostuaren eta onuraren azterketaren etapak: aztergaiaren definizioa, azterketaren ikuspegia eta aukeren hautaketa. Kostuen eta onuren identifikazioa, neurria eta balorazioa. Denbora kontuan hartzea kostuei eta onurei dagokienez: deskontuaren tasa hautatzea. Arriskua eta ziurtasun eza kontuan hartzea. Kontuan hartze distributiboak. Erabakitzearen arauak. Kostuaren eta onuraren azterketaren mugak.

9. gaia.- Osasuna lehentasunezko ondasun gisa. Osasunaren hornidura publikoa: finantzabidea eta produkzioa; produkzio publikoa eta pribatua; Osasunaren Sistema Nazionala; osasun arloko erreformak. Hezkuntza lehentasunezko ondasun gisa: Espainiako hezkuntza sistema.

10. gaia.- Espainiako Estatuaren prestazio ekonomikoaren programak. Errentak ordeztuko programen justifikazioa. Gizarte Segurantzaren pentsioen sistema eta horren erreforma. Langabezia-asegurua. Pobreziaren aurkako programak. Mendekotasunaren arreta.

11. gaia.- Diru-sarrera publikoak. Diru-sarrera publikoak sailkatzeko irizpideak. Zerga: kontzeptua eta osagaiak. Zergapetze mota nagusiak.

12. gaia.- Zergapetzearen printzipioak. Onuraren eta ordaintzeko gaitasunaren printzipioak. Zergapetzearen kostuak. Iruzur fiskala: kontzeptua, ondorioak eta baldintzatzen duten elementuak.

13. gaia.- Prezioak, tasak eta kontribuzio bereziak. Tasak: kontzeptua eta sailkapena. Kontribuzio bereziak. Enpresa publikoa eta prezioen finkapen publikoa.

14. gaia.- Enpresa publikoa, kontzeptua eta helburuak. Haren kudeaketaren oinarritzko ezaugarriak. Enpresan publikoaren kontrol sistema. Finantzabideak. Egitura finantzarioa. Balorazio metodoak.

15. gaia.- Aurrekontua: kontzeptua eta alderdi orokorrak. Aurrekontuen zikloa. Aurrekontu eredu gaur egungo egoera eta aurreikuspenak. Aurrekontua helburuen arabera.

16. gaia.- Aurrekontua prestatzea eta betetzea. Aurrekontuaren gainerako erabakiak gastuei eta diru-sarrerei buruz: aurrekontuen egitura. Aurrekontua eta planifikazio eta programazio sistemak.

Aurrekontua betetzeko eta kontrolatzeko prozesua.

17. gaia.- Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna: araubide juridikoa. Aplikazio eremua eta printzipio orokorrak. Arau fiskalen instrumentazioa eta helburuak finkatzea. Prebenitzeko, zuzentzeko eta zigortzeko neurriak. Gardentasun printzipioa. Aurrekontuen kudeaketa

18. gaia.- Gastu publikoa: definizioa, motak eta eragina jarduera ekonomikoaren gainean. Konstituzioaren printzipioak gastu publikoaren arloan eta Konstituzioaren nozioa aurrekontuaren egonkortasunari buruz. Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna, gaur egun. Defizit publikoaren kalkulua Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren ondorioetarako.

19. gaia.- Zor publikoa: kontzeptua, motak eta ondorio ekonomikoak; zor publikoaren zama. Sektore publikoaren zorpetzearen araubide juridikoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen abalak. Zorra Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera.

20. gaia.- Oinarritzko magnitude agregatuak: produktu nazionala, kontsumoa eta inbertsioa, gastu nazionala. Nazio produktu gordina eta garbia. Nazio errenta eta errenta erabilgarria. Errentaren eta produktuaren fluxu zirkularra. Nazio errentaren kontabilitatea ekonomia ireki batean.

21. gaia.- Espainiako finantza sistemaren egitura instituzionala. Agintaritza monetarioa. Europako Banku Zentrala, banku zentralen sistema europarra, eta Espainiako Bankua. Politika monetarioa: tresnak eta eraginak ekonomian.

22. gaia.- Moneta eta kapital merkatu finantzarioak. Deribatuen eta dibisen merkatuak.

Bigarren multzoko gaiak.
Auditorretza eta kontu-auzitegiak.

1. gaia.- Auditorretza publikoa: kontzeptua eta ezaugarriak. Auditorretza publiko motak helburuaren arabera. Auditorretza edo fiskalizazio publikoa egiteaz arduratzen direnak. Eremu pribatuko auditorretzaren aipamena.

2. gaia.- Sektore Publikoa fiskalizatzeko oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 100.

3. gaia.- Finantzen fiskalizazioaren edo auditorretzaren oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 200.

4. gaia.- Fiskalizazio operatiboaren oinarritzko printzipioak: ISSAI-ES 300.

5. gaia.- Betetzeko fiskalizazioaren oinarriko printzipioak: ISSAI-ES 400.

6. gaia.- Auditoretza pribatuaren oinarriko printzipioak, NIA-ESen jasotakoak.

7. gaia.- Auditoretza publikoaren planifikazioa. Auditoretza edo fiskalizazio lanaren faseak. Plangintza jarduerak: auditoretzaren estrategia orokorra eta auditoretzaren plan orokorra. Lan programak, auditoretzaren prozedurak eta lan paperak. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

8. gaia.- Ebidentzia: kontzeptua eta izaera, frogak auditoretzan ebidentziak eskuratzeko eta egiaztatze teknikak. Materialtasuna edo garrantzi erlatiboa: kontzeptua, faktore kualitatiboak eta kuantitatiboak. Auditoretzako arriskua: kontzeptuak eta osagaiak. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

9. gaia.- Laginketa auditoretza publikoan: laginketa estatistikoaren eta ez-estatistikoaren teknikak. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

10. gaia.- Barneko kontrola: kontzeptua eta motak, auditoreak barneko kontrola egiaztatu eta ebaluatzea. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

11. gaia.- Auditorearen erantzukizunak iruzurraren kontrako fiskalizazioan. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

12. gaia.- Auditoretza ingurune informatikoean: printzipioak, metodologia eta berrikusteko teknikak. Sistema informatizatuen barneko kontrola eta segurtasuna. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

13. gaia.- Zerga bidezko diru-sarreraren auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

14. gaia.- Zergaz kanpoko diru-sarreraren auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

15. gaia.- Langileria gastuen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

16. gaia.- Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

17. gaia.- Gastuen auditoretza transferentzian, diru-laguntzetan eta laguntza publikoetan. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

18. gaia.- Inbertsioen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

19. gaia.- Ibilgetu ez finantzarioaren auditoretza eta inbertsio finantzarioarena. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

20. gaia.- Diruzaintzaren auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

21. gaia.- Izakinen, zordunen eta kobratu beharreko beste kontu batzuen, hartzekodunen eta ordaindu beharreko beste kontu batzuen auditoretzak. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

22. gaia.- Ondare garbiaren auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

23. gaia.- Zorpetzearen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

24. gaia.- Emandako abal publikoen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

25. gaia.- Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketen auditoretza. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

26. gaia.- Auditoretza enpresa publikoetan, fundazio publikoetan eta beste entitate publiko batzuetan. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

27. gaia.- Auditoretza publikoaren txostenak: egitura eta iritzi motak. Salbuespenen izaera: irismenaren mugak eta kontularitzako printzipioak eta arauak ez betetzea. Txostenaren publizitatea. Gomendioak. GPF-OCEX eta ISSAI-en intzidentzia arlo hauetan.

28. gaia.- Auditoretzaren txostenak eremu pribatuan. Ohar orokorrak eta edukia. Iritzi motak.

29. gaia.- Goi mailako entitate fiskalizatzaileak edo kanpoko kontrolerako erakunde publikoak: ideia orokorrak eta antolaketa ereduak. Haien kontrol-ekintzaren eremua. Parlamentuekiko eta gobernuekiko harremanak. Espainian duen konfigurazioa.

30. gaia.- Europako Kontuen Auzitegia: izaera, antolaketa eta eginkizunak.

31. gaia.- Kontuen Auzitegiaren osaera, beraren lege organikoan eta funtzionamendu legean: izaera, antolaketa eta funtzioak.

32. gaia.- Nafarroako Kontuen Ganbera: jatorria eta bilakaera. Gaur egungo araubidea. Eginkizunak eta antolaketa. Haren funtzionamendurako arau oinarrikoak.

Hirugarren multzoko gaiak
Zuzenbide Publikoa.

1. gaia.- Europako Erkidegoko zuzenbidea: kontzeptua eta ezaugarriak. Erkidegoko zuzenbidearen iturriak. Jatorrizko zuzenbidea. Zuzenbide eratorria: erregelamendua, zuzentarauak eta erabakiak. Europar Batasunaren Funtzionamendurako Ituna. Europar Batasunaren zuzenbidearen eragina Foru Komunitatean.

2. gaia.- Europa eraikitzeke prozesua. Europar Batasuna. Europar Batasuneko erakunde-sistema: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Batzordea, Europako Parlamentua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia eta Europako Banku Zentrala.

3. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa (1): ezaugarriak eta egitura. Atariko titulua. Koroa. Gorte Nagusiak. Gobernua eta Administrazioa. Ekonomia eta Ogasuna. Botere judiziala.

4. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioa (2): Estatuaren lurralde antolaketa eta eskumenen banaketa. Konstituzio Auzitegia.

5. gaia.- Nafarroako Foru Eraentza. Nafarroa, Gaztelari erantsi aurretik eta ondoren. 1841eko Lege Itundua: aurrekariak, izaera juridikoa eta edukia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa: izaera, egitura eta edukia.

6. gaia.- Nafarroako Parlamentua: aurrekariak. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua. Parlamentuaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua. Eginkizunak: bereziki legegintzako eginkizuna eta legegintza prozeduraren oinarritzko alderdiak. Parlamentariaren eskubideak eta betebeharrak. Parlamentuko taldeak. Parlamentuko kontrol tresnak. Parlamentuaren eta Kontuen Ganberaren arteko harremanak.

7. gaia.- Nafarroako Gobernua: aurrekariak. Jarduteko oinarritzko printzipioak, Hobekuntzan eta foru lege arautzailean ezarritakoak. Antolaketa, eginkizunak eta eskumenak. Nafarroako Gobernuako lehendakaria. Gobernuako kideak. Nafarroako Gobernuaren araugintzako ahalmena. Erantzukizun politikoa eta Parlamentuaren kontrola. Bataerazintasunen araubidea.

8. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren araubide juridikoa. Jarduketaren oinarri orokorrak. Antolaketa eta funtzionamendua. Administrazio prozeduraren oinarritzko alderdiak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Erakun-

de publikoak eta Administrazioaren menpeko beste entitate batzuk.

9. gaia.- Foru Komunitateko beste erakunde batzuk: Nafarroako Kontseilua. Foru Komunitateko Arartekoa. Erakunde horien araubidea, antolaketa eta eginkizunak. Nafarroako Administrazio Auzitegia: aurrekariak, antolaketa eta eskumenak.

10. gaia.- Administrazio zuzenbidearen iturburuak: Konstituzioa. Legea. Lege dekretuak. Legegintzaren delegazioa. Erregelamendua. Legearen eta erregelamenduaren arteko loturak. Erregelamendu-ahalmena: titulartasuna, mugak eta kontrola.

11. gaia.- Administrazio Publikoa eta zuzenbidea. Administrazio ahalmenak. Legezkotasunaren printzipioa. Administrazioaren autotutoretzarako ahalmena. Zerbitzu publikoaren kontzeptua. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.

12. gaia.- Administrazio egintza. Elementuak. Forma. Motak. Administrazio egintzen baliaezintasuna: erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio egintza irregularrak. Baliozkotzea, gordetzea eta bihurtzea. Administrazio egintzak ofizioz berraztertzea eta errebokatzea.

13. gaia.- Administrazio egintzen eraginkortasuna. Administrazio egintzen jakinarazpena eta argitalpena. Administrazio egintzaren ondorioen etendura. Nahitaezko betearazpena eta premiamentu bidearen aipamen berezia. Isiltasun administratiboa.

14. gaia.- Administrazio prozedura erkidea: kontzeptua, printzipioak eta motak. Alderdiak prozeduran. Hasiera, antolamendua eta instrukzioa. Prozeduraren bukaera: moduak. Administrazio elektronikoa: betebeharrak eta tresnak. Egoitza elektronikoa eta web ataria. Dokumentuen kudeaketa. Prozedura elektronikoa.

15. gaia.- Errekurtso administratiboak: kontzeptua eta motak. Errekurtso administratiboak tramitatzeke eta ebazteke prozedura. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Hedadura eta mugak. Prozeduraren alderdiak. Epaia. Errekurtsoak.

16. gaia.- Sektore publiko instituzionala. Erakunde publikoak: tipologia eta araubide juridikoa. Zuzenbide pribatuko entitateak: tipologia eta araubide juridikoa. Bestelako entitate motak.

17. gaia.- Osasunari buruzko Foru Legea. Osasungintzan aplikatu beharreko oinarritzko printzipioak. Herritarren eskubideak. Administrazio publikoen eskumenak eta eginkizunak. Osasun

arloko lurralde antolamendua. Nafarroako Osasun Zerbitzua: egitura organikoa, oinarritzko araubide juridikoa. Ekimen pribatuarekiko lankidetzak: osasun arloko itunak.

18. gaia.- Unibertsitateak. Antolaketa, funtzionamenduaren eta kudeaketaren arloetan aplikatu beharreko oinarritzko araubide juridikoa. Araubide ekonomikoa eta aurrekontuena. Unibertsitateen zerbitzuko langileak. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aipamen berezia.

19. gaia.- Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (1). Oinarritzko printzipioak. Legearen egitura eta edukia. Aplikazio eremu objektiboa eta subjektiboa. Adjudikazio botereak. Kontratatuen gaitasuna eta kaudimena. Baztertzeko arrazoiak. Publizitate arauak eta adjudikazio prozedurak. Kontratazioaren kudeaketa hobetzeko sistemak.

20. gaia.- Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (2). Kontratuak gauzatzea. Azpikontratazioa eta kontratuaren lagapena. Prezioen berrikuspena. Kontratuen aldaketak. Erreklamazioak eta lizitazioen kontrolerako beste neurri batzuk. Kontratuen baliogabetasuna. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziak.

21. gaia.- Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (3). Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuen arau berariazkoak. Kontratatze organoak. Kontratazio mahaia. Kontratuak prestatzeko jarduketak. Administrazio kontratuak exekutatze arau orokorrak. Kontratisten ordainsariak. Administrazio publikoen kontratuak azkentzea.

22. gaia.- Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (4). Administrazio publikoen kontratuen araubide juridikoa. Obra kontratua. Obrak emateko kontratua. Zerbitzuak emateko kontratua. Hornidura kontratua. Zerbitzu kontratua.

23. gaia.- Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa publiko instrumentalei egiten zaizkien mandatuen erregulazioa: helburua, entitate instrumentalaren aitortza eta mandatuen araubide juridikoa, ekonomikoa eta administratiboa. Publizitatea. Kapital mistoko sozietateekiko kontratuak.

24. gaia.- Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako Itun Sozialei buruzko Foru Legea. Xedea eta printzipioak. Adjudikaziodunek bete beharreko baldintzak. Itunaren xede diren zerbitzuak. Esleitzeko prozedurak eta irizpideak. Hitzarmenen iraupena eta gauzatzea. Ez betetzea eta iraungitzea. Ebaluazioa.

25. gaia.- Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea: aurrekariak. Ondasun eta eskubideen sail-

kapena, eskumenak eta ondarea kudeatzeko irizpideak. Ondasunak eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Nafarroako Ondarea administratu, babestu eta defendatzea. Jabari publikoko ondasunen araubide juridikoa. Jabari pribatuko ondasunen araubide juridikoa. Enpresen ondare publikoa.

26. gaia.- Nafarroako Toki Administrazioa (1). Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen oinarritzko alderdiak. Nafarroako toki entitateen antolaketa eta administrazioa. Funtzionamendua. Toki entitateen jarduerak, zerbitzuak eta obrak.

27. gaia.- Nafarroako Toki Administrazioa (2). Toki entitateen ondasunak. Toki ogasunak. Toki entitateen jarduketaren kontrola.

28. gaia.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak (1). Oinarritzko erregulazioa. Langile motak. Funtzionario publikoak. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren oinarritzko alderdiak. Funtzionario bihurtzea eta funtzionario izateari uztea. Funtzionarioen egoerak. Eskubideak eta betebeharrak. Oinarritzko ordainsariak eta osagarriak.

29. gaia.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileak (2). Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutua garatzen duten erregelamenduak. Lanpostuen sarrera eta hornidura kudeatzeko sistemak. Oporrak, lizentziak eta baimenak. Funtzionario publikoen diziplina araubidea eta bateraezintasun araubidea.

30. gaia.- Gizarte Segurantzak. Araubide orokorra. Araubide bereziei buruzko aipamena. Nafarroako administrazio publikoetako mutualitateetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko foru legea: arau orokorrak, kotizazioa eta sistemaren prestazioak.

31. gaia.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea. Legearen xedea eta helburuak. Aplikazio-eremua. Gardentasuna. Publizitate aktiboa. Informazio publikorako eskubidea. Informazio publikoa eskuratze eskubidea erabiltzeko prozedura. Herritarren parte-hartzea eta elkarlana. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari erreklamazioak aurkeztea. Zehapen araubidea. Gardentasunaren Kontseilua: eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

32. gaia.- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko Foru Legea. Bulegoaren alderdi orokorrak. Eginkizunak. Ikerketa-prozedura. Izapidetze-prozedura. Bulegoaren antolaketa eta funtzionamendua. Zehatzeko ahalmena.

33. gaia.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina (1). Oinarrizko printzipioak. Legearen egitura eta edukia. Lurralde antolamenduko eta hirigintzako tresnak.

34. gaia.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina (2). Lurzoru motak eta haien araubide juridikoa. Lurzoruaren balorazioa eta desjabetze araubidea. Planeamendua gauzatzeko tresnak. Lurzoruaren merkatuan gauzatzeko bitartekoak.

35. gaia.- Diru-laguntzei buruzko Foru Legea. Aurrekariak eta legearen aplikazio eremua. Diru-laguntza publikoen kudeaketaren arloko printzipio orokorrak. Diru-laguntzak eman eta kudeatzeko prozedurak. Diru-laguntzen jarraipena eta kontrola. Diru-laguntzak itzuli beharra. Diru-laguntza publikoak arautzen dituen estatuko legearen aipamen laburra eta haren aplikazioa Nafarroan.

36. gaia.- Datu pertsonalak babestea. Egungo arau-esparrua. Datu pertsonalen babesari buruzko Europako erregelamendua. Definizioak. Datu babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak. Datuen babesaren arloko figura nagusiak. Datuen babeseko ordezkaria. Datuak Babesteko Agentzia.

Laugarren multzoko gaiak Finantza, Kontabilitate eta Merkataritza Zuzenbidea.

1. gaia.- Finantza zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Aurrekontu zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Ogasun Publikoa Espainiako Konstituzioan.

2. gaia.- Gastu publikoa: kontzeptua eta Konstituzio printzipioak. Gastu publikoa egiteko prozedura orokorra eta prozedura bereziak. Ordaintzeko prozedura.

3. gaia.- Kontabilitateko plan orokorra. Kontabilitatearen esparru kontzeptuala, aitortzari eta balorazioari buruzko arauak eta urteko kontuak.

4. gaia.- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra. Kontabilitate publikoaren esparru kontzeptuala, aitortzari eta balorazioari buruzko arauak, urteko kontuak eta kudeaketa publikoaren gaineko informazioa.

5. gaia.- Kontabilitate publikoaren eta kontabilitate nazionalaren arteko loturak. Kontabilitate doikuntzak nazio kontabilitatearen baldintzetan. Defizita eta gastuen erregela kalkulatzeko gidaliburuak, autonomia erkidegoetara eta toki entitateetara egokituak. Kontabilitate pribatuaren plan

orokorra aplikatzen duten enpresa unitateen defizitaren kalkulua kontabilitate nazionallean.

6. gaia.- Kontabilitate analitikoa toki kontabilitatearen ohiko ereduaren instrukzio berrian. Benetako kostua toki kontabilitate publikoaren esparruan.

7. gaia.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea (1). Aplikazio eremua eta Ogasun Publikoaren araubidea. Nafarroako aurrekontu orokorrak: prestatzea, eztabaidatzea, onestea eta betetzea. Aurrekontuen egitura eta aldaketak.

8. gaia.- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea (2). Finantza-eragiketak. Diruzaintza. Kontabilitatea. Erantzukizunak.

9. gaia.- Barne kontrola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean eta Barneko Kontroleko Erregelamendua onesten duen 31/2010 Foru Dekretuan.

10. gaia.- Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak. Administrazio Publikoaren aurkako delituak: prebrikazioa, agiriak zaintzeko desleialtasuna, sekretuak urratzea, funtzionarioen eroskeria, eragimen-trafikoa, bidegabeko eralgitzea, iruzurrak, legearen aurkako ordainarazpenak, funtzionario publikoei debekaturiko negoziazio eta jarduerak, eta abusuak eginkizunetan aritzean.

11. gaia.- Foru Komunitatearen sektore publikoa: osatzen duten entitate garrantzitsuenen deskribapena, tipologia eta definizioa. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Legea: helburua, esparrua eta edukia.

12. gaia.- Foru Komunitateko finantza jardueraren kanpo kontrola. Nafarroako Kontuen Ganbera: helburua, haren jarduketa arautzen duten printzipioak, haren txostenen eragina eta edukia. Fiskalizatzeko prozedura.

13. gaia.- Kontuen Auzitegiaren kontabilitate arloko jurisdikzioa. Jurisdikzio horren izaera eta ezaugarriak. Kontabilitate arloko erantzukizun kasuak. Erantzukizun mota hori eskatzeko prozedurak. Kontabilitateari buruzko jurisdikzioaren organoak. Nafarroako Kontuen Ganberaren esku-menak kontabilitateari buruzko erantzukizunaren arloan.

14. gaia.- Zerga zuzenbidea kontzeptua eta edukia. Iturriak. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra: jatorrizko printzipio orokorrak. Tributuen kudeaketa, oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak. Diru-bilketa. Tributuen gaineko ikuskapena: planak eta jarduteko prozedurak.

15. gaia.- Tributuak Nafarroan: kontzeptua eta sailkapena. Zergak eta horien motak. Tasak. Prezio publikoak. Kontribuzio bereziak.

16. gaia.- 1841eko Lege Itunduaren xedapenak Ogasunaren arloan. Hitzarmenaren eta Kontzertu Ekonomikoaren arteko aldeak. Nafarroaren eta estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoen historia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoaren xedapenak arlo honetan.

17. gaia.- 1990eko uztailaren 31ko Hitzarmen Ekonomikoa eta haren eguneratzeak. xedapen orokorrak. Tributu harmonizazioa. Tributu moten tratamendua eta araubidea. Arbitraje Batzordea. Ekarpene ekonomikoa. Koordinazio Batzordea.

18. gaia.- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua: eginkizunak eta egitura. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoa: egitura eta eginkizunak. Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa.

19. gaia.- Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Legea: printzipioak, egitura eta edukia. Nafarroako Toki Ogasunen baliabideak. Udal zergak.

20. gaia.- Nafarroako toki entitateen aurrekontua eta gastu publikoa. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea eta 270/1998 eta 234/2015 foru dekretuetan aurreikusitako araubidea. Toki entitateen diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu egitura. Aurrekontuaren betearazpena eta likidazioa. Diruzaintza toki entitateetan. Kontrola eta fiskalizazioa. Erantzukizunak.

21. gaia.- Nafarroako toki entitateen kontabilitate araubidea: 272/1998 eta 273/1998 Foru Dekretuak.

22. gaia.- Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateen deskripzioa eta bakoitzaren oinarritzko ezaugarriak.

23. gaia.- Merkataritza sozietatea: kontzeptua eta motak. Merkataritza-sozietatearen kontratua: oinarritzko elementuak. Eraketaren formalitateak. Erregistroko eskritura eta inskripzioa. Kapital-sozietateen funtsezko ezaugarriak. Estatutu eta egitura mailako aldaketa nagusiak: kapitala handitzea eta gutxitzea, fusioa, eraldaketa eta zatitzea. Sozietateak desagitea, likidatzea eta azkentzea.

24. gaia.- Konkurtsoa: aurrekontu objektiboa eta subjektiboa. Konkurtsoa deklaratzeko autoa eta haren eraginak. Masa aktiboa eta pasiboa zehaztea. Sailkapena eta ordainketa. Hitzarmena. Bukaera eta kalifikazioa.

25. gaia.- Sozietateen urteko kontuak. Motak, urteko kontuak egitea, egiaztatzea, onestea eta gordetzea. Merkataritzako Erregistroa: inskripzioaren kontzeptua, edukia eta esanahia.

26. gaia.- Sozietate taldeak. Haien araubide juridikoa. Urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak esparru publikoan eta pribatuan. Kontu-bateratzearen subjektuak. Kontu bateratuak egiteko betebeharrak. Kontu bateratuak egiteko metodoak. Urteko kontu bateratuak.

27. gaia.- Kontuen Auditoretzari buruzko Legea eta haren erregelamendua. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutua: izaera, antolaketa eta funtzioak

